

**Prostituzio jardueraren erregulazioa
nazioarteko zuzenbidean eta EBko
herrialdeetan**

Gradu Amaierako Lana

2020-2021 Ikasturtea

(Leioa)

Euskal Herriko Unibertsitatea – Zuzenbide Fakultatea

Egilea: Itsaso Akordarrementeria Malatsetxebarria

Zuzendaria: Iñigo María Bullain López

AURKIBIDEA

SARRERA	4-6
----------------------	------------

1. LEHENENGO ATALA: KONTZEPTUA

1.1. OHAR OROKORRAK: ZER DA PROSTITUZIOA.....	6
1.2. PROSTITUZIOA ETA PERTSONEN SALEROSKETA.....	8

2. BIGARREN ATALA: PROSTITUZIOA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN

2.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA.....	12
2.1.1. 1948ko GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA.....	12
2.1.1.1. 1976ko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna.....	13
2.1.1.2. 1976ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna.....	14
2.1.2. 1949ko PERTSONEN SALEROSKETA ETA BESTEREN KONTURAKO PROSTITUZIO ESPLOTAZIOARI BURUZKO HITZARMENA.....	15
2.1.3. 1969ko ARRAZA-BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK EZABATZEARI BURUZKO NAZIOARTEKO HITZARMENA.....	17
2.1.4. 1979ko EMAKUMEAREN AURKAKO EDOZEIN FORMATAKO DISKRIMINAZIO EZABATZEARI BURUZKO HITZARMENA.....	18
2.1.4.1. Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 19. Gomendio Orokorra eta Emakumearen aurkako genero-arrazoiengatiko indarkeriari buruzko 35. Gomendio Orokorra, 19. Gomendioa eguneratzen duena.....	19
2.1.4.2. Langile migratzaileei buruzko 26. Gomendio Orokorra.....	20
2.2. EUROPAR ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA.....	20

3. HIRUGARREN ATALA: PROSTITUZIOA ARAUTZEKO EREDUAK: EUROPA MAILAN

3.1 SARRERA.....	24
3.2. EREDU ERREGULATZAILEA	24
3.2.1. ALEMANIA.....	25
3.2.1.1. Gizarte Segurantzako Babes Ekonomikoa.....	27
3.2.1.2. Osasun babesa eta kontrola.....	27
3.2.1.3. Emakumeen sexu-autodeterminazioa babesteko neurriak.....	27

3.2.1.4. Sexu-langileen lantokiak.....	27
3.2.2. HERBEHEREAK.....	28
3.2.2.1. Osasun babesu eta kontrola.....	30
3.2.2.2. Sexu-langileen lantokiak.....	31
3.3. EREDU ABOLIZIONISTA	32
3.3.1. SUECIA.....	33
3.3.2. IPAR IRLANDA.....	36
3.4. EREDU DEBEKATZAILEA.....	36
3.5. ARAUDI FALTA EDO ALEGALITATEA.....	38
3.5.1. ESPAINIA.....	38
4. LAUGARREN ATALA: AZKEN GOGOETAK ETA ONDORIOAK.....	40
BIBLIOGRAFIA.....	47

SARRERA

Prostituzioaren gaiaren inguruan eztabaida asko egon dira telebistan, irratian, prentsan eta baita feministen asanbladetan eta elkarteetan ere. Horrek, gizartearen arteko talka ez ezik, feminismoaren baitan sekulako amildegia zabaldu du prostituzioaren erregulazioaren eta abolizioaren artean. Europar Batasunari begiratu besterik ez dugu: 27 herrialdeetan prostituzioaren gaineko lau eredu desberdin daude indarrean. Nolanahi ere, landu beharreko oso gai garrantzitsua iruditzen zait Espainian ez baitago gai hau arautzen duen inolako legerik, Europako sexu-turismoaren gune bilakatu dela kontuan izanda¹.

Honi loturik, adierazi behar da prostituzioa zer den definitzea konplexua suertatzen da fenomenoaren aurrean hartzen den jarreraren arabera eta herrialde bakoitzak bizi izan duen historiak desberdintasun argiak sortzen direlako. Errealitate sozial eta kriminologiko oso berezia osatzen du eta horregatik, ezkutuan garatzen den jarduera da. Era berean, jarduerak ez dauka muga argirik, horretan aritzen diren pertsonen testuingurua aldagarria da oso eta askotan, planteatutako definizioak aurreiritzietatik abiatuta planteatu dira. Izan ere, zer da prostituzioa? Lan honen bidez, galdera horri hurbileko erantzun bat ematen saiatuko gara.

Galderari erantzun aldera, lan hau lau zatitan banatu da. Lehendabiziko atalean, prostituzioa zer den eta prostituzioa praktikatzen duten pertsonen errealitatean zer dakarren aztertzen da. Puntu honetan, garrantzitsua litzateke norberaren borondatez edo behartuta egindako prostituzioa bereiztea; pertsonen salerosketa, sexu-esplotazioa eta lan-esplotazioa ez baitira termino beraren adiera desberdinak. Egia da arau abolizionistek terminologia horien parekotasunerantz jotzen duela baina ez du halakorik egiten errealitate bakarra “lan behartua” dela uste duelako, baizik eta sektore horretan jarduten dutenen gehiengoaren ezaugarriak bateratuak direlako: emakumeak, etorkinak edo/eta sarrera ekonomiko baxuko pertsonak. Kasu askotan, bidaia eta sarrera erraztu dieten trafiko sareen bidez etorri dira, neurritz kanpoko kopuruak ordaintzera behartuak

¹ Ikus. adibidez: Europa Press «España, tercer país en el ranking de demanda de prostitución, según datos de la ONU», *Público*, 2019ko otsailaren 5a: <https://www.publico.es/sociedad/prostitucion-espana-tercer-pais-consumo-prostitucion.html>; CASTRO, NATALIA «España, el país donde más prostitución se consume de toda Europa», *El plural*, 2019ko otsailaren 5a: https://www.elplural.com/sociedad/prostitucion-espana-pais-donde-mas-consume-europa_210544102

izan zirenak. Prostituzioa biziraupen ekonomikorako modu gisa erabiltzen dute eta hori bizitzeko modu oso gogorra da, baldintza desatseginetan gauzatu ohi dena. Halako ideia jasotzen duen “Pertsonen Salerosketa Prebenitu, Erreprimitu eta Zigortzeko Protokoloak, bereziki emakumeen eta haurren salerosketari buruzkoa” aztergai izango da atal honetan.

Bigarren, prostituzioaren inguruko nazioarteko testuak aztertu dira. Orokorrean, prostituzioa pertsonen salerosketarekin eta sexu-esplotazioarekin parekatzen dira eta ondorioz, bi fenomenoak ezabatzeko beharra defendatzen duten testuak dira. Esaterako, “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak”, “Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak” eta “Emakumearen Aurkako Edozein Indarkeria Mota Ezabatzeari buruzko Hitzarmenak” irizten dute prostituzioa eta salerosketa sinonimoak direla eta, aldi berean, esplotazioarekin identifika daitezkeela; horrek esan nahi du giza eskubideen urraketa mota horiek ezabatu egin beharko liratekeela. Prostituzioa eta pertsonen salerosketa ezabatzeko edo ezabatzeko ideia horri eutsiz, prostituzioa emakumearekiko diskriminazio forma dela kontsideratzen da. Nazioarteko testuen artean, lan honetarako garrantzitsuena dena ere azalduko da: “Pertsonen Salerosketa eta Besteren Konturako Prostituzio Esplotazioari buruzko Hitzarmena”, prostituzioaren ezabatzearen aldeko lehendabiziko tresna abolizionista izan zena. Mundu-mailako zuzenbide egoera zein den aztertu ondoren, Europar Batasunean indarrean duen Zuzentarauak ikusiko dira. Hauetan ere, prostituzioa esplotazioarekin berdindu eta bere erradikaziorako neurriak ezartzen ditu.

Hirugarren atalean, Europan indarrean dauden prostituzioa arautzeko lau ikuspuntu azalduko dira eta bakoitzaren errealitatea ikusteko herrialdeen araubideari erreparatuko zaio. Ikuspuntu bakoitza prostituzioa ulertzeko modu bat da. Erregulazionismoak sexu langileen aitortza eta lan eskubideen defentsa aldarrikatzen du, prostituzioa baimentzen duten bi herrialdeen legeak zein diren ezagutuko dugu: Alemania eta Herbehereak, hurrenez hurren. Horri kontrajarriz, abolizionismoak prostituzioaren ezeztapena bilatzen du prostituitzen diren pertsonak indarkeriaren biktima direla aldarrikatuz; arlo honetan aitzindaria izan den Suediako legea aztertuko da eta Ipar Irlandako azken urteetako errealitate aldaketari ere so egingo zaio. Honen ildo beretik baina erruduntasuna bezeroengan jarri beharrean, prostituten gain jartzen duen eredia debekatzaila da; hau da, prostituzioa ezabatu behar dela irizten da modelo honetan, prostituzioak gizartearekiko gaitz bat suposatzen duelako, baina gaitz horren errudunak ez lirateke

bezeroak edota prostitutako pertsonen “enplegatzaileak” izango, prostitutena baizik. Bukatzeko, herrialde gehienek hartutako postura ikusiko da: ez arautzearena. Prostituzioari buruzko arau nazionalik ez dago: ez da berariaz debekatzen ez baimentzen, baina udalerrri, probintzia eta antzekoei euren barrutian honen inguruko erabakiak har ditzaten uzten da. Espainia talde honetan sartuko litzateke; ez da berez eredu bat, errealitate bat baizik.

Eredu horien azterketatik ondorioztatzen denez, prostituzioa gauzatzeari buruzko legeriak askotarikoak dira eta oinarri duten eredu ideologikoaren arabera, jarduera horretan osasunarentzat arriskutsua den eta kontrolatu behar den praktika bat suposatzen duela ikusiko da; edota oinarritzko eskubideak urratzen dituen eta hura gauzaten duenaren duintasuna urratzen duen fenomeno bat dela kontsideratuko da; ala beste edozein borondatezko lan bezala, babes sozial eta juridikoa bilatu behar dela ikusiko da.

Bukatzeko, idatzi diren kontu guztiei buruzko ondorioak aurkezten dira eta analisi horrekin batera, lortu ditudan gogoeta pertsonalak erakusten dira.

1. LEHENENGO ATALA: KONTZEPTUA

1.1. OHAR OROKORRAK: ZER DA PROSTITUZIOA

Prostituzioa² zehazki zertan datzan adieraztea ez da kontu samurra. Aurreiritzi³ eta joera ideologikoen⁴ definizioetan eragina izaten dute. Prostituitutako Emakumeen Prebentziorako, Gizarteratzeko eta Arretarako Elkarteak⁵ (APRAMP) hainbat iturrietatik hartutako definizioak jaso zituen 2005ean argitaratutako txostenean: “*Un sistema en el cual las mujeres se dejan atrapar como consecuencia de su miseria económica, [...]*”; “*La prostitución no es una expresión de libertad sexual de la mujer, sino que es[...] forma de esclavitud [...] son mantenidas a través de la fuerza premeditada y el abuso físico [...] privaciones y desventajas económicas, marginalización, pérdida de identidad, manipulación y decepción*”.

² Latinez *prostituere* (pro- eta *stituere*), literalki, *saltzeko eskuragarri* esan nahi du.

³ POYATOS I MATAS, GLORIA «La prostitución como trabajo autónomo», 2009 (8-9 orr).

⁴ ACIEN, E. y MAJUELOS, F. «De la exclusión al estigma. Almería: Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía», 2003.

⁵ APRAMP/Fundación de Mujeres «La prostitución - Claves básicas para reflexionar sobre un problema», 2005 (11-13 orr).

Definizio guzti hauek ikustean ondorio batera heltzen gara: hasieran aipatu bezala, prostituzioa ezin da *objektiboki* modu *absolutu* batean definitu alderdi bakoitzak gai honen inguruan daukan testuinguru kultural, sozial, ideologiko, ekonomiko, politiko eta erlijiosoak eragiten dutelako. Hala ere, definizio sinplea emateak ere –diru eta ondasun truke harreman sexuala eskaintzea– arazoak sortzen dizkigu horrek prostituzioaren errealitatea nabarmenki murrizten duelako eta bestelako jarduera batzuk –masajeak ematea, *streapteasea*, dantza erotikoak– hortik kanpo geratzen direlako. Horren ondorioz, sexu-langileen eta bezeroaren populazioaren estimazioa lortzea zaila da.

Gaiari buruz hitz egin eta eztabaidatu ahal izateko, lehenbizi ezinbestekoa litzateke prostituzioak dituen aurpegi desberdinak aztertzea. Perspektiba anitz aurkitzen ditugu. Alde batetik, herrialde batzuetan lan zuzenbidearen baitan⁶ erregulaturiko aktibitate zilegia da. Prostituzioan aritzeko erabakia prostituituko den pertsonak askatasunez eta lana aukeratzeko borondatea egikaritzuz hartzen duela ulertzen da. Lana librea eta borondatezkoa da eta besteren konturakoa zein norbere konturakoa izan daiteke. Hori bai, egintza zilegia izateko adostasuna askea (*conditio sine quae non*) izan behar da, hertsapen eta derrigorrik gabea, horrek kontratua baliogabetuko bailuke. Hala ere, funtsezko arazoak ditugu prostituzioa besteren konturako lan gisa sartzeko aukera hori baieztatzea eragotziko liguketenak⁷.

Beste aldean, jarduera hau debekaturik egon beharko litzatekeela uste dutenak kokatzen dira. Prostituzioa ulertzeko bigarren ikuspuntu honetan prostituituko den pertsonaren erabateko erabaki askatasunik ez dagoela irizten da; behin kontraprestazio bat egonik, prostituzioan aritzeko borondatea deuseztatzen baita. Izan ere, aktibitate honetan aritzen

⁶ Izaera bereziko lan harremana: bada espainiar doktrinaren sektore bat prostituzioaren jarduera lan-harreman gisa onartzearen alde egin duena: GRUPO DE ESTUDIOS DE POLÍTICA CRIMINAL «Propuesta de regulación del ejercicio voluntario de la prostitución entre adultos», 2010 (24.orr): “*con el fin de evitar la imposición de condiciones abusivas por parte de los empleadores, y de proteger los derechos sociales de aquellas personas que realizan trabajos sexuales por cuenta ajena, se propone regular en trabajo por cuenta ajena mediante una relación laboral de carácter especial, en el marco del artículo 2 del Estatuto de Trabajadores*”.

⁷ Europako Parlamentua eta Europar Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua Gizakien Salerosketa Prebenitu eta Borrokatzeari eta Biktimak Babesteari buruzkoa, 2002/629/JAI Erabakia, 2011ko apirilaren 5a: <https://www.boe.es/eli/es/1/2015/04/27/4/dof/eus/pdf>

direnen gehiengoa emakumea eta atzerritarra da hainbat ikerketek⁸ erakutsi duten bezala egintza hau baimenduta eta erregulatuta dagoen herrialdeetan ere. Gainera, prostituzioa heterogeneoa⁹ da. Goi-mailako zerbitzuak eskaintzen dira batzuetan (*escort* agentziak) baina gehiengoa irabazi eta kostu baxuko sektoreak izaten dira –sarritan lan harreman esplotatzaileen menpean daudenak– hirugarren batek kudeatutako prostituzio-etxeak eta kalea. Sektore honek kapitalismo gordinak markatutako ezkutuko ekonomia bat garatu du eta honek, esplotazio kriminalerako muga zehartzea ahalbidetzen du.

1.2. PROSTITUZIOA ETA PERTSONEN SALEROSKETA

Zenbait autore, feminista erregulazionistek eta antzeko ideologia mantentzen duten taldeek prostituzioaren jardunaren borondatezkotasunean eta lan izaeran sinesten duten arren, errealitatean prostituzioa eta esplotazio sexualerako emakumeen salerosketa estu lotuta dauden fenomenoak dira, larritasun egoeran dauden emakumeei eragiten diena. Delinkuentzia mota hau gero eta handiagoa da baina zoritxarrez ezin da zifra ofizialekin hitz egin ezkutuan garatzen baita. Hala ere, Migrazioaren Nazioarteko Bulegoaren arabera Europa mendebaldera iristen diren trafikoaren eta salerosketaren ondoriozko biktimak milioi erdi baino gehiago omen dira urtero, batez ere sexu-esplotaziorako helburua dutenak, eta gehienak emakumeak eta haurrak dira, esklabotza moderno horrekiko talde zaurgarrienak¹⁰.

⁸ DAALDER, ANNELIES «Prostitution in the Netherlands in 2014», 2015eko apirila, *Research and Documentation Centre (WODC) gidaritzapean* (7.orr): “A Regioplan research team researched the social position of prostitutes as perceived by the prostitutes. To this end, 364 prostitutes were interviewed who work in various sub-sectors of the prostitution sector, namely: window prostitution (n=101); clubs or private houses (n=85); escort (n=71); home prostitution (n=57); massage parlours (n=36) and other sub-sectors, such as SM studios or street prostitution (n=14). Of the respondents, 93% is female, 5% is male and 2% is transgender. [...] Interviews were held in several languages: Dutch, Spanish, English, Thai, Romanian, Hungarian and Bulgarian”.

⁹ D. CZARNECKI, H. ENGELS, B. KAVEMANN, W. SCHENK, E. STEFFAN eta D. TÜRNUAU «Prostitution in Germany – A Comprehensive Analysis of Complex Challenges», 2014ko apirila. Pertsonen trafikoari buruzko ahokularia: Naile Tanis: https://spi-research.eu/wp-content/uploads/2014/11/ProstitutioninGermanyEN_main.pdf

¹⁰ FEDERACIÓN MUJERES PROGRESISTAS «Trata de mujeres con fines de explotación sexual en España [estudio exploratorio]», *Fmujeresprogresistas*, 2008 (6.orr)

Pertsonen salerosketa pertsonaren giza eskubideak urratzen dituen gizartearen aurkako nazioarteko delitua da, biktimen askatasunaren eta duintasunaren aurka egiten duena. Horren barruan hainbat egintza ez-zilegi sartzen dira, pertsonak legez kanpo hartzen direnetik euren esplotazioa eman arte. XXI. mendeko esklabotza¹¹ da.

Pertsonen Salerosketa Prebenitu, Erreprimitu eta Zigortzeko Protokoloak, bereziki emakumeen eta haurren salerosketari buruzkoak, Nazio Batuetako Delinkuentzia Antolatuaren aurkako Hitzarmenaren osagarri dena, 3.artikuluari pertsonen salerosketa honela definitzen du: *“La captación, el transporte, el traslado, la acogida o la recepción de personas, recurriendo a la amenaza o al uso de la fuerza u otras formas de coacción, al rapto, al fraude, al engaño, al abuso de poder o de una situación de vulnerabilidad o a la concesión o recepción de pagos o beneficios para obtener el consentimiento de una persona que tenga autoridad sobre otra, con fines de explotación. Esa explotación incluirá, como mínimo, la explotación de la prostitución ajena u otras formas de explotación sexual, los trabajos o servicios forzados, la esclavitud o las prácticas análogas a la esclavitud, la servidumbre o la extracción de órganos”*.

Nazio Batuen Erakundeak 2000. urtean onartu zuen Pertsonen Salerosketaren Aurkako Protokoloak (Palermoko Hitzarmena) gizakien salerosketaren aurka borrokatzeko nazioarteko funtsezko tresna osatzen du. Hitzarmen hau beste bi Protokolok osatzen dute: Lurreko, Itsasoko eta Aireko Migratzaileen Kontrabandoaren aurkako Protokoloa eta Suzko armak legez kanpo fabrikatu eta fabrikatzearen aurkako Protokoloa.

Pertsonen salerosketari buruzko mundu mailako definizioa ematen duen lehen Protokolo hau herrialdeentzat (estatu sinatzaileentzat) legez loteslea den tresna da. Definizio horren atzean dagoen asmoa ikuspegi nazionaletan bateratzea erraztea da, pertsonen salerosketa-kasuak ikertzeko eta epaitzeko nazioarteko lankidetzaren eraginkorra babesten duten arau-hauste penal nazionalak ezartzeari dagokionez. Protokoloaren beste helburu bat da giza eskubideak erabat errespetatzen dituzten pertsonen salerosketaren biktimak babestea eta laguntzea.

Europar Batasunari dagokionez, pertsonen salerosketaren definizioa 2011/36/EB Zuzentarauan dago jasota, Gizakien Salerosketa Prebenitu eta Borrokatzeari eta

¹¹ UNHCR/ACNUR Errefuxiatuen Babeserako Nazio Batuen Erakunde Agentzia

Biktimak Babesteari buruzkoa¹². Zuzentarauaren 2. artikuluan gizakien trafikoak barnebiltzen dituen delituak zerrendatzen dira. Gizakien trafikoaren baitan besteren konturako prostituzioa edo beste eratako sexu-esplotazioa berariaz aipatzen dira (2.3 artikulua); eta are gehiago, hurrengo epigrafean aipatzen da gizakien salerosketaren biktima izan denak emandako adostasuna baliogabea izango dela, nahita emandakoa izan denean ere.

Zuzentarauak zerrendatzen dituen esplotazio formak ez dira *numerus clausus*, Estatu Kideek euren barne araudian bestelako forma batzuk ere tipifikatu ditzakete (22. artikulua).

Pertsonen salerosketaren kontzeptua hiru elementuk¹³ osatzen dute: ekintzak, bitartekoak eta esplotaziorako helburuak. Ekintzak honi egiten dio erreferentzia: pertsonen atzemateari, garraiatzeari, lekualdatzeari, hartzeari edo jasotzeari. Horretarako erabilitako bitartekoak biktimarengan nolabaiteko beldurra edota bizitzarekiko kontrola suposatuta behar dute horretarako hartzaileak mehatxuaz, indarrak, hertsapenez, bahiketaz edo iruzurrak baliatuta. Biktima nolabaiteko ahultasun-egoeran aurkitu behar da (ekonomikoan, sozialean), bere borondatearen aurka hartua izan behar da. Helburua, argi dagoenez, esplotazioa izan behar da; sexuala, lanekoa, organoen salmenta, delituzko jardueren gauzatzea (lapurretak eta batez ere, droga trafikoari dagozkionak) eta antzeko abusuzko praktikak. Prostituzioarekin lotuta dagoen fenomenoaren sexu-esplotaziorako salerosketa da, hau da, besteren prostituzioa eta beste sexu-esplotazio mota batzuk (pornografia, adibidez) esplotatzeko helburua duena.

Ondorio gisa esan dezakegu kontzeptua osatzen duten ohiko ekintzetatik ondoriozta daitekeenez, jokabide horrek denboran zehar garatzen den eta hainbat fasez osatuta dagoen jokabide bat irudikatzen duela: biktima biltzea edo erakartzea, biktima

¹² 2021eko otsailaren 10eko Europako Parlamentuaren Ebazpenean, 2011/36/EB Zuzentarauaren aplikazioari buruz (2020/2029(INI)) honakoa esan zen: “C. *Considerando que el número registrado de víctimas de la trata de seres humanos se ha incrementado en el último período de estudio de la Comisión (2017 y 2018) en comparación con el anterior, y sigue en aumento ; que, con toda probabilidad, el número real de víctimas es considerablemente superior al de los datos notificados, ya que muchas de ellas no se detectan*”.

¹³ UNODC «Trata de personas y tráfico ilícito de migrantes. Vinculaciones entre la cibercibercriminalidad, el tráfico ilícito de migrantes y la trata de personas», Nazio Batuen Erakundearen argitalpena, 2019 (Viena) (4.orr): https://www.unodc.org/documents/e4j/tip-som/Module_14_-_E4J_TIP-SOM_ES_FINAL.pdf

garraiatzea eta bera ustiatzea. Honi loturik, argitu behar da salerosketaren fenomenoaren osatzen duen azken elementu horrek ez duela haren kontzeptu arauemailea integratzen; izan ere, salerosketa esklabotza prozesuarekin identifikatzen da, baina ez du esklabotza-aldia bera barne hartzen. Horregatik, esplotazioa eta esklabotza bereiztu¹⁴ behar dira.

Europako Batzordeak 2018an argitaratutako ikerketak¹⁵ erakusten du Europar Batasunean giza salerosketarekin lotutako 5.979 auzipetu egon ziren 2015-2016 urteetan, 3.142 2015ean eta 2.837 2016an. Gizakien salerosketak hainbat forma har ditzakeenez, ikerketa egiterako garaian hiru kategoria bereizi ziren: sexuala, lanekoa eta bestelakoak. Gizakien salerosketako susmagarriek, auziperatutakoek eta kondenatuek erabilitako esplotazio formari buruzko datuak eman zituen: susmagarrien (78%), auziperatuen (75%) eta kondenatuen (72%) hiru laurdenek sexu-esplotazioarekin lotutako egintzengatik ikertuak eta auziperatuak izan ziren 2015-2016 urteetan Europar Batasuneko 28 herrialdeetan. Kondenatuei buruzko datuak 19 estatu kideek eman zituzten eta urte horietan pertsonen salerosketagatik kondenatu gehien izan zituzten herrialdeak Frantzia, Errumania, Italia, Herbehereak eta Bulgaria izan ziren. Eurostat-ek emandako datuen arabera, 2010-2012 urteetan kondenatu gehien zerranda Errumania, Alemania, Bulgaria, Herbehereak eta Belgikak osatu zuten.

Ikusi daitekeen bezala, hiru herrialde bi denbora tarte horietan agertzen dira: Errumania, Herbehereak eta Bulgaria. Kontutan izan beharko litzateke Herbehereetan 2000. urtetik prostituzioa erregulatzeko Legea indarrean dagoela, zeinaren helburu nagusitzat esplotazio-sexualarekin amaitzea (edo behintzat, murriztea) den; berdin Alemaniarekin. Dena dela, datu hauek ere beste zerbait erakusten digute: batetik, herrialde askok zuzenean ez dutela inolako daturik bidaltzen eta bestetik, bidaltzen dutenen artetik, prostituzioa erregulatuta dagoen herrialdeek datu askoz zehatzagoak bidaltzen dituztela, erregistroak dauzkatelako eta horrek prostituzio erregulatuaren eta derrigortuaren arteko bereizketa egitea errazten dielako. Beraz, datu hauek ez dute esan nahi gainerako herrialdeetan esplotazio eta pertsona salerosketarik ez dagoela, baizik eta horien kontrol eta zenbaketarako baliabiderik ez dagoela.

¹⁴ MORALES PLAZA, EVA MARIA «Prostitución y trata de mujeres con fines de explotación sexual», 2011 (18.orr).

¹⁵ Europako Batzordea «Data collection on trafficking 2018 in human beings in the EU», *Lancaster University* Europako Batzordearekin elkarlanean, 2018 (95-106 orr.): https://ec.europa.eu/home-affairs/sites/default/files/what-we-do/policies/european-agenda-security/20181204_data-collection-study.pdf

Prostituzioa pertsonaren duintasunaren, osotasun fisiko, psikologiko eta sexualaren aurkako eraso argia da eta XXI. mendeko esklabotza forma bezala kontsideratzen da. Gainera, emakumeen aurka egindako sexu-indarkeriarik ikusezinena¹⁶ da. Hain zuzen Drogaren eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoak¹⁷ 2019an aurkeztutako ikerketa batek erakutsi zuen 2018an mundu osoan detektatutako biktimen %72a emakumezkoa zela; kasuen %49a adinez nagusia zen eta gainerako %23a, aldiz, adin txikikoa. Horrek erakutsi zuen aurreko ikerketarekin alderatuta (2016) pertsonen salerosketak gora egin zuela.

2. BIGARREN ATALA: PROSTITUZIOA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN

2.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA

2.1.1. 1948ko GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA

Giza eskubideen historian inflexio puntua markatu zuen dokumentua da, mundu osoan zehar aurrekari juridiko eta kultural ezberdinetako herrialde guztietako ordezkariak garatutakoa. Nazio Batuen Batzorde Orokorrak aldarrikatutakoa, Parisen 1948ko abenduaren 10ean 217 A (III) Ebazpenaren bitartez, nazio eta herri guztien arteko helburu bateratu¹⁸ gisa.

Adierazpen honek, lehendabizikoz, ezarri zituen mundu osoan babestu beharreko oinarriko eskubideen zerrenda. Estatuengan nahitaezkoak eta lotesleak diren betebeharrak ezartzen ez dituen arren, NBERen nazioarteko beste bi hitzarmen sortzeko oinarria izan zen: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. Hitzarmen hauetan ez ziren izaera erabat pertsonaleko eskubideak soilik onartu, baizik eta baita ere gizabanakoak gizartearekiko dituen eskubideak (28-30 artikuluen bitartez).

¹⁶ COMISIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN DE MALOS TRATOS A MUJERES «¿Qué es la prostitución?»: <https://malostratos.org/asociacion-contra-la-prostitucion/que-es-la-prostitucion/>

¹⁷ UNODC «Global report on trafficking in persons 2018», Nazio Batuen Erakundearen argitalpena, 2018: https://www.unodc.org/documents/data-and-analysis/glotip/2018/GLOTIP_2018_BOOK_web_small.pdf

¹⁸ 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Hitzaurrea.

Dagokigun gaiari erreparatuz, Adierazpen honek prostituzioa, esplotazioa eta pertsonen salerosketari ematen dien trataerari erreparatu behar zaio. 4.artikuluari, gizakiaren askatasun eta duintasuna oinarritzat hartuz, inor ez dela esklabotzaren edo morrontzaren menpe egongo adierazten da eta are gehiago, edozein formatako esklabotza eta esklaboaren salerosketa debekatuta daudela ezartzen du. Ildo beretik, 5. artikuluan xedatzen da inor ez dela tratatu ez gizatiarren menpe egongo. Artikulu hauetatik ondoriozta daitekeena da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala prostituzioaren debekua jasotzen duen nazioarteko tresna bat dela giza eskubideen aurako ekintzatzat eta esklabotzaren forma moderno bat direla aldarrikatuz.

Prostituzioa, beraz, pertsonen salerosketarekin konparatuta agertzen da, biak lotuta joango balira bezala, debekuaren eremuan sartuz. Adierazpena sektore ideologiko, araugile eta sozial moduan. Hainbat artikuluetan jasotzen da debekuaren ideia hau, ulertzen baita giza eskubideei buruzko testu honetan jasotzen diren eskubide eta askatasunen aurka egiten dutela prostituzioak.

Hala ere, urteak pasa ahala, bestelako itun eta tratatu batzuk sinatu dira emakumearen erabaki askatasuna sendotzen dutenak. Horregatik kontutan hartu behar da 23. artikulua dioena: *“1. Pertsona orok du lanerako eskubidea, lana askatasunez aukeratzeko eskubidea, lan baldintza egokiak izateko eskubidea eta langabeziaren aurkako babesa izateko eskubidea. [...]”*. Puntu honetan aztertu beharko litzatekeen zera da: ea prostituzioa eta bestelako zerbitzu sexualen ematea lana diren ala ez erabakitzea. Izan ere, prostituzioak lan izaera har dezake askatasunez egikaritutako lana denean eta legezko baldintzak betetzen direnean: hurrengo bi azpiataletan sakonduko da.

2.1.1.1. 1976ko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna

Prostituzioaren ikuspegi “debekatzaile” hori islatzen duen nazioarteko beste tresnetako bat 1976ko eskubide Zibil eta Politikoen Ituna da. Alde anitzeko dokumentu orokor honetan eskubide zibil eta politikoak aitortzen dira, baita hauek babesteko eta bermatzeko tresnak sortzen dituen ere. Nazio Batuen Batzorde Orokorrak onartu zuen 1966ko abenduaren 16an 2200 A (XXI) Ebazpenaren bitartez. 1976ko martxoaren 23an sartu zen indarrean, 49.artikuluko baldintzen eta berrespenen menpean. Itun hau beste batekin batera onartu zen: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. Bi hauek, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin batera, Giza Eskubideen Nazioarteko Karta osatzen dute.

Prostituzioa eta pertsonen salerosketa behin betiko ezabatzeari dagokionez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean gertatzen den bezala, itun honek 8. artikuluan ezartzen du inor ezin izango dela esklabo gisa hartu; beste era batean esanda, edozein eratako esplotazioa eta esklaboen salerosketa debekatuta egongo dira forma guztietan. Prostituzioa pertsonen salerosketa gisa ulertzen badugu eta beraz, esklabotza gisa edo hirugarren batek behartuta egindako lan gisa, lege honen aplikazio eremuan sartuko liteke. Beste kontu bat izango litzateke prostituzioa derrigortutako lanaren parekoa dela baieztatzea baina hori egitea galarazten du 8.c) artikulua derrigortutako lanaren zerrenda itxi bat aurkezten baitu eta beraz, prostituzioa ez litzateke kategoria horretan sartuko, 8.1 artikuluko esklabotzaren debekuan baizik .

Laburtuz, araudi honen aplikazio-eremuaren baitan prostituzioaren fenomenoaren sartzeari ahalbidetzen duen harremana pertsonen salerosketaren eta sexu-esklabotzaren aitortzean datza, beraz, prostituzioaren debekua justifikatu daiteke, giza eskubideak urratzen baititu¹⁹.

2.1.1.2. 1976ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna

Nazio Batuen Batzarde Orokorra onartu zuen 1966ko abenduaren 16an 2200A (XXI) Ebazpenaren bitartez eta indarraldia 1976ko urtarrilaren 3an hasi zen. Itun honen ondorioz, Estatu sinatzaileek pertsona ororen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteari alde egiteko konpromisoa hartu zuten, edonork lan, osasun eta hezkuntza eskubideak eta bizi-maila egokia izan dezan.

Itun hau prostituzioa ulertzeko/argudiatzeko beste perspektiba bat azaltzeko erabili daiteke; zehazki, 6. artikulua ezartzen duen lan egiteko eskubidean. Eskubide honen baitan daude pertsona orok duen eskubidea askatasunez aukeratutako lanaren bidez bizimodua aurrera ateratzeko aukera izatea, Estatuaren erantzukizuna izanik hori bermatzeko neurri egokiak hartzea. Prostituzioa lan gisa ulertu daiteke eta honekin batera, pertsonak bere borondate askatasunaz baliatuz, lan hau egikaritzeko nahian islatu daiteke.

Hori bai, prostituzioaren izaera laboralaz mintzatu aldera, langileen lan baldintzak aipatu behar dira, Estatuaren eta enplegu-emailearen gain jartzen den betebeharra izanik

¹⁹ PÉREZ OLIVA «Prostitución, una esclavitud no tan visible», *El*, 2009ko maiatzaren 29a: http://elpais.com/diario/2009/05/24/opinion/1243116005_850215.html

(7. artikulua). Estatuaren eta enplegatzailen erantzukizuna da laneko segurtasun eta higiene baldintza minimoak ematen direla aseguratzea. XIX. mendean, segurtasunaren izenean, Frantzia eta Erresuma Batuan prostituzioan aritzen zirenei azterketa medikoak egitera behartu nahi izan zitzairen sexu-transmisio bidezko gaixotasunen zabalkuntza murrizteko asmoarekin. Derrigortasunaren ondorioz, kritika asko azaldu ziren azterketa horien izaera umiliagarria zela eta, izan ere, azterketak egitera behartuak prostitutak ziren eta ez bezeroak. Gaur egun, norberaren ohore eta intimitate eskubideen izenean, prostituzioa baimenduta dagoen Europako herrialdeetan azterketa medikoen derrigortasunik ez ezartzea erabaki izan da burdelen eta antzeko establezimenduengan arreta jarritz.

Bukatzeko, eta kontuan izanik prostituzioan aritzen diren langileen ehuneko handiena emakumea dela, amei eman beharreko babes berezia aipatu behar da. Itunaren 10.2 artikulua ezartzen du “*se debe conceder especial protección a las madres durante un período de tiempo razonable antes y después del parto*”. Ondorioz, haurdunaldiak dirauen tarte horretan ordainsari edo Gizarte Segurantzako prestazio egokiekin segurtasuna eman behar zaie.

2.1.2. 1949ko PERTSONEN SALEROSKETA ETA BESTEREN KONTURAKO PROSTITUZIO ESPLOTAZIOARI BURUZKO HITZARMENA

Hitzarmen hau Nazio Batuen Batzorde Orokorrak onartu zuen 1949ko abenduaren 2an 317 (IV) Ebazpenaren bitartez eta 1951ko uztailaren 25ean sartu zen indarrean. Hitzarmen hau garatzeko arrazoia hitzaurrean topatzen dugu, bertan adierazten baita prostituzioa eta harekin batera doan gaitza, baita pertsonen salerosketa ere, bateraezinak direla pertsonaren duintasunarekin eta balioarekin eta ondorioz, arriskuan jartzen dutela gizabanakoaren, familiaren eta komunitatearen ongizatea. Hitzarmen honek, Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmenak bezala, prostituzio askearen eta prostituzio behartuaren artean ez du bereizketarik egiten, besteren prostituziotik aberasteko jokabide oro gaitzesten du baitu. Prostituzioan aritzen den pertsona oro beren gorputza saltzera behartuta dagoen biktimatza²⁰ hartzen da.

²⁰ MARCOVICH, MALKA. «Guide to the UN Convention of 2 December 1949 for the Suppression of the Traffic in Persons and of the Exploitation of the Prostitution of

Hitzarmenaren onarpenarekin, horren parte diren estatu sinatzaileek adostu zuten beste baten grinak asetzeko pertsona baten prostituzioa adostea edo pertsona baten prostituzioa esplotatzea zigorgarria izango zela, zerbitzu hori emateko pertsonaren adostasuna izan arren (1. artikulua). Hitzarmenaren 2. artikulua prostituzioaren sektorearekin zerikusia daukaten bestelako portaera batzuk tipifikatzen ditu: prostituzio-etxe bat mantentzen, administratzen edo jakinaren gainean establezimendu hori finantzatzen duen pertsona oro zigortuko da eta aldi berean, besteren konturako prostituzioa ustiatzeko eraikin edo beste eratako lokal bat errentan eman edo hartzea ere zigorgarria izango da. Hitzarmenak prostituzioaren aspektu guztiak zigortzearen alde egiten du: zerbitzuaren ematek hori garatzen den establezimenduetara arte.

Prostituzioan aritzen diren pertsonak edo prostituzioan aritzen direla susmatzen direnek erregistro berezi batean inskribatu behar dutela, dokumentu berezi bat eduki behar dutela edo zaintza zein jakinarazpen helburuetarako salbuespenezko betekizunen bat bete behar dutela ezartzen duen eta indarrean dagoen edozein lege, erregelamendu edo administrazio-xedapen indargabetzeko beharrezko neurriak hartzea gomendatzen die Hitzarmenak Estatu sinatzaileei 6. artikulua bidez.

Bestalde, kontuan izanik Hitzarmenaren helburua pertsonen salerosketaren eta prostituzioaren aurka egitea dela, Hitzarmenak 16. artikuluan xedatzen du prostituzioa prebenitzeko eta haren biktimak errehabilitatu eta gizartera egokitzeko, baita araudian zehar aipatzen diren arau-hausteetatik babesteko ere, neurriak hartu behar dituztela alderdiek. Era berean, neurri horiek estatu bakoitzaren zerbitzu publikoen bidez zein hezkuntza, osasun, gizarte eta ekonomia arloko zerbitzu pribatuen bidez har daitezten bultzatzen du. Ondorioz, alderdiak biktimak atenditzeko betebeharra hartzen dute beren gain. Hurrengo artikuluan, genero bateko zein besteko pertsonen salerosketa ekiditeko immigrazio eta emigrazioarekin lotuta dauden neurriak hartzeko alderdiak konprometitu daitezten ezartzen du. Hala nola: iristean eta irteteen babes eskaintzeko arauak aldarrikatzea; tren geltokietan, aireportuetan, itsas-portuetan eta bestelako lekuetan zaintza-lanak bermatzeko neurriak hartzea; salerosketaren errudun edo konplize direnen edo haien biktimak direla diruditen pertsonak iritsi direla agintari eskudunei jakinarazteko informazio-baliabideak hartzea, eta abar.

2.1.3. 1969ko ARRAZA-BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK EZABATZEARI BURUZKO NAZIOARTEKO HITZARMENA

Arraza bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko 1963ko Adierazpenean²¹ oinarritutako itun hau Nazio Batuen Batzorde Orokorrak onartu zuen 1965eko abenduaren 21ean 2106 A (XX) Ebazpenaren bitartez eta 1969ko urtarrilaren 4an sartu zen indarrean, beharrezko berrespen kopurua lortu ondoren (19. artikulua). Nazioarteko araudi hau aztertzeak garrantzi berezia hartzen du prostituzioaren gaian, izan ere, diskriminazio etnikoa, arrazagatikoa eta generoan oinarritutakoa pertsonen salerosketaren eta prostituzioaren testuinguruari eragiten dioten faktore sozialak²² dira.

Hasteko, lehenengo artikuluan, “arrazagatiko diskriminazioa” zer den definitzen da maila ezberdinetan ematen den bereizkeriari buruzko irizpide zabaltasuna eskainiz: “arrazza, kolore, leinu edo jatorri nazional nahiz etiko oinarri izanik gauzatutako edozein eratako bereizkeri, baztertze, murrizpen edo lehentasun, zeinaren helburu edo emaitza dena berdintasunez giza eskubide eta oinarritzko askatasunen aintzatespena, gozamina edo egikaritzea deuseztatu ala kaltetzea esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural edo bizitza publikoko bestelako edozein esparrutan” (1.1 artikulua).

Hitzarmenaren 5. artikuluan estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute arraza-bereizkeria bere forma guztietan debekatzeko eta ezabatzeke eta pertsona orok legearen aurrean berdintasuna izateko duen eskubidea bermatzeko. Hau da, babestu beharreko eskubideen zerrenda bat egiten da eta horretatik aipagarrienak suertatzen zaizkigu ordaindutako lanerako eskubidea, enplegua askatasunez aukeratzeko eskubidea eta sindikatuak osatzeko eta horietara afiliatzeko eskubidea; izan ere, eskubide horien baitan prostituzioa lan gisa egikaritzeko eskubidea sartzen den ala ez eztabaidagarria suertatzen da. Hasieran aipatu bezala, puntu honek sortzen du eztabaida gehien prostituzioari dagokionez: prostituzioaren izaera laborala aitortuz gero, jarduera hori egikaritzeko eskubidea babestu beharko litzateke; eta kontrara, prostituzioan aritzen direnak biktima gisa aitortzen baditugu bestelako eskubide batzuetara jo beharko litzateke, hala nola babes eta asistentziakoak.

²¹ 1969ko Hitzarmena ez da 1963an aldarrikatu zen Adierazpenarekin nahastu behar: Arraza-bereizkeria mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Hitzarmena Arraza-bereizkeria mota guztiak Ezabatzeari buruzko 1963ko Adierazpenean oinarritzen da. 1963ko azaroaren 20ko Adierazpena Nazio Batuen Batzorde Orokorraren 1904 (XVIII) Ebazpenaren bitartez onartu zen.

²² CELEM «Prostitución. Ataque directo a los derechos humanos», 2010 (47-60 orr).

2.1.4. 1979ko EMAKUMEAREN AURKAKO EDOZEIN FORMATAKO DISKRIMINAZIO EZABATZEARI BURUZKO HITZARMENA

Emakumearen aurkako edozein formatako diskriminazio ezabatzeari buruzko Hitzarmena Emakumearen Egoera Juridikoaren Batzordeak –Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1946an sortua– hainbat urteetan zehar egindako lanaren emaitza da. Emakumearen eskubideen aldeko nazioarteko adierazpen gisa gorpuztu zen Nazio Batuen Batzorde Orokorrek 1979an onartutako nazioarteko ituna da, 1981eko irailaren 3an eratu zena. Emakumeen aurako diskriminazio mota guztien aurka egiten duen historiako nazioarteko dokumentu juridikorik garrantzitsuenetako bat da.

Nazioarteko Hitzarmen honetan generoagatiko bereizkeria legez kanpoko deklaratu zen eta hitzarmeneko estatu kideak diskriminatzaileak ziren legeak indargabetzera eta osasun publikoaren, enpleguaren eta hezkuntzaren arloetan berdintasuna bermatzeko xedapen berriak hartzera sustatu zituen²³. Era berean, Estatu alderdiek auzitegi eta erakunde publikoak ezarri behar dituzte emakumeak bereizkeriatik babesteko eta horretarako, babes eraginkorra bermatu aldera, behin-behineko izaera duten neurri bereziak martxan jartzeko konpromisoa hartzen dute gizonaren eta emakumearen arteko *de facto* berdintasuna arintzeko (4. artikulua).

Hitzarmenaren ondorioetarako, “emakumearen aurkako bereizkeria” adierazpenaren baitan sartuko da “*sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, zeinaren emakumearen berdintasuna, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibiletan edo beste edozein esparrutako aitorpen, gozamen edo egikaritzea kaltetzea edo deuseztatzea helburu edo emaitza duen, emakumearen egoera zibila edozein dela ere*”. (1.artikulua).

Prostituzioari buruz, esaten da estatu kideek emakumeen salerosketaren eta prostituzioaren esplotazioaren era guztiak ezabatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituztela, horien artean lege-izaerakoak direnak ere kontuan hartuz (6.

²³ Sexuagatiko diskriminazio horri amaiera emateko ekintza-programa bat ezartzen du; CARRACEDO BULLIDO/VICENTE COLLADO, «La Prostitución no es un fenómeno social legalizable», Emakume Abokatuen XVI. Estatuko Kongresua, 2002 (2-7 orr).

artikulua). Hitzarmen honetan ere, prostituzioa emakumearekiko diskriminazio²⁴ formatzat hartzen dela eta beraz, gizartetik behin betiko ezabatu²⁵ behar dela.

Hitzarmen honen aplikaziopean egindako aurrerapenak aztertze aldera, 17. artikuluan xedatzen da Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordea deritzona ezarriko dela, Hitzarmenaren esparruan ospe moral eta gaitasun handia duten hogeita hiru adituz osatutakoa. Batzordea zaintza-sistema bezalako bat da Hitzarmena berretsi duten nahiz horri atxiki zaizkion estatuek egindako Hitzarmenaren aplikazioaren nondik norakoak aztertzen dituen. Batzordearen zeregina estatu alderdiek aurkeztutako txostenetan oinarrituz gomendioak eta proposamenak egitea da. Horien artean hurrengoak dira aipatzekoak:

2.1.4.1. Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 19. Gomendio Orokorra eta Emakumearen aurkako genero-arrazoiengatiko indarkeriari buruzko 35. Gomendio Orokorra, zeinaren bidez 19. Gomendioa eguneratzen den

1992ko 19. Gomendio Orokorra historikoa izan zen, argi eta garbi emakumeen aurkako indarkeria generoan oinarritutako eta emakumea menderatzeko erabiltzen zen diskriminazioaren agerpen forma bat bezala definitu zelako. Indarkeria esfera pribatutik atera eta giza eskubideen testuingurura ekarri zen. 35. Gomendio Orokorrak 19.ak onartutakoa zabalago garatu zuen. Batzordeak baieztatu zuen emakumearen aurkako diskriminazioa beste faktore batzuekin lotuta zegoela: jatorri etnikoa edo arraza, egoera sozioekonomikoa, jatorri nazionala, etab). Batzordeak onartzen du, horregatik, genero-arrazoiengatiko indarkeriak beste neurri batean eragiten diela emakumeei eta horrek esan nahi du erantzun juridiko eta araudi egokiak behar dituztela. Hau kontuan izanik, Komiteak estatu alderdiei gomendio zehatzak luzatzen dizkie diskriminatzaileak diren arauak indargabetzeko eskatuz, prebentzio neurriak hartzera bultzatuz eta batez ere, emakumeei babes eskaintzera behartuz. Prostituzioari buruz aipatzen da jarduera horren biktimei babes berezia eskaini behar zaiela indarkeriarekiko bereziki kalteberak

²⁴ KRAUS, INGEBORG «La prostitution est incompatible avec l'égalité hommes-femmes», Wordpress, *La Comisión para la Investigación de Malos Tratos a Mujeres* Erakundeak Madrilen antolatutako konferentziatik aterata, 2015eko azaroaren 15a (Madril):<https://resourcesprostitution.wordpress.com/2015/12/23/dre-ingeborg-kraus-la-prostitution-est-incompatible-avec-legalite-hommes-femmes/>

²⁵ CEDAW «Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la Convención para la Eliminación de toda Forma Discriminación Contra las Mujeres», 2014

direlako; laguntza ekonomikoen, asistentzia zentroyen, hezkuntzaren, lanera sartzeko programen eta abarren bidez.

2.1.4.2. Langile migratzaileei buruzko 26. Gomendio Orokorra

Migratzaileak gizonezkoak eta emakumezkoak izan daitezkeen arren, migrazioa ez da generotik aparteko fenomenoa. Emakume migratzaileen egoera desberdina da migratzen diren sektoreen egoeraren arabera, biktima diren abusuengatik eta horren ondorioz jasaten dituzten ondorioekin alderatuta. Emakumeak kaltetuak diren modu zehatzak ulertzeko, beharrezkoa da emakumearen migrazioa aztertzea genero bereizkeriaren, emakumeen ohiturazko rolen eta lan desorekaren ikuspegitik (*feminización de la pobreza*). Emakumezko langile migratzaileen giza eskubideak urratu egite dira ez soilik familiek edo ingurukoek egindako egintzengatik baizik eta estatuko agenteen eskutik. Horregatik, agente publikoen formakuntzaren beharra azpimarratzen da.

2.2. EUROPAR ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA

Orain arte ikusi da nazioarteko araudian nola erregulatu izan den prostituzioa eta esplotazio sexualaren fenomenoa, aplikagarri dena Europa osoan estatu kideek berretsitakoak baitira. Dena dela, marko juridiko zabal hori europar organoek eta erakundeek egindako ekarpenekin handitu behar da.

Europako Kontseiluaren esparruan, gai honi buruzko lehen dokumentua sexu-esplotazioari, pornografiari eta prostituzioari buruzko eta haur eta emakume gazteen salerosketari buruzko 3. Ebazpena izan zen (Europako Justizia Ministroen 16. Konferentzia, 1988ko ekaina), baina 1990etik aurrera hasi zen agertzen sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Batzordearen Agendan²⁶. Arazo horrek kezka handia sortu zuen hurrengo urteetan; izan ere, sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa indarkeria mota bat ez ezik, giza eskubideen urraketa handi bat ere suposatzen zuela ondorioztatu zen. Ez da onartzen prostituzioan askatasunez aritzeko aukera dagoenik; aitzitik, prostituzio guztia esplotazioa dela ulertzen da eta, beraz, desagerrarazi egin behar da.

²⁶ BOZA MORENO, ELENA «Sobre la prostitución. Un análisis desde la Política Criminal y la necesidad de su legalización», Doktoretza Tesia, Juana del-Carpio-Delgado Zuzendaria, 2017ko ekaina, Sevilla (47-65 orr).

Lehendabizi, Estatu kideetako Ministroen Batzordeak 1991ko irailaren 9an emandako adingabe eta gazteen sexu-esplotazioari, pornografiari, prostituzioari eta trafikoari buruzko 11. Gomendia onartu zen. 1992an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Batzorde Zuzendariak “Emakumeen Salerosketaren eta Prostituzio Behartuaren Aurkako Ekintzarako Espezialisten taldea” sortu zuen eta talde horri Gomendio bat idaztea agindu zitzaion, Ministroen Batzordeak aurkeztu zuena 2000ko maiatzaren 19an, sexu-esplotazioa helburu duen gizakien trafikoaren aurkako neurriei buruzkoa. Urte gutxiren buruan 1997an, 1325. Gomendia plazaratu zuen Europako Kontseiluak estatu kideetako emakumeen salerosketari eta behartutako prostituzioari buruzkoa. 2002ko urtarrilaren 21ean Parlamentuko Batzarrak emakumeen trafikoaren aurkako kanpaina aurkeztu zuen 1545. Gomendioaren bitartez eta bukatzeko, emakumeen trafikoarekin eta prostituzioarekin lotutako migrazioei buruzko 1610. Gomendia aldarrikatu zen 2003ko ekainaren 25ean. Testu guzti hauen helburua pertsonen salerosketari eta prostituzioari aurre egiteko europar estrategia bateratu baten markoa osatzea da kooperazio judizial eta nazioarteko lankidetzarekin baita eskaintza esparru antolatu batekin ere osatutakoa. Gainera, biktimei babesa emateko baliabideak eta laguntzak ere jasotzen ditu.

Hala eta guztiz ere, Europako Kontseiluak beharrezkotzat jo zuen gomendioetatik harago joango zen tresna juridiko lotesle bat egitea, estatuak efektiboki behartuko zituen emakumeen salerosketa eta esplotazio sexualaren –baita prostituzioaren– erradikaziorako neurriak hartzera. Behar horrek ahalbidetu zuen gai konkretu hau tratatzeko bi Hitzarmen onestera: Gizakien Salerosketaren Aurkako Ekintzari buruzko Hitzarmena²⁷ eta Haurrak Sexu-esplotazioaren eta Sexu-abusuen Aurka Babesteari buruzko Hitzarmena²⁸. Europar Batasunaren baitan ere beste hainbat araubidezko idatzi egin dira esplotazio sexualaren helbururako pertsonen salerosketaren gaiari dagokionez. Aipagarrienetako bat izango litzateke Kontseiluaren Erabakiak (2002/629/JAI), 2002ko uztailearen 19an Sevillan adostutakoa. Horren bidez, lan eta sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako borrokan estatu kideen neurri komunak har ditzaten konpromisoa berritu zen. Bestalde, pertsonen salerosketaren biktima izan direnei edo legez kanpoko immigrazioa menderatuta egon direnei egoitza baimena ematea

²⁷ Europako Kontseiluaren 197. Hitzarmena, 2005eko maiatzaren 16an egin zen Varsovian eta 2008ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean.

²⁸ Europako Kontseiluan 201. Hitzarmena, 2007ko urriaren 25ean egin zen Lanzaroten eta 2010ko uztailearen 1ean sartu zen indarrean.

erregulatzen duen 2004/81/EB Zuzentaraua ere bereziki aipatzekoa da, izan ere, delitu horien baitan jardun duten biktimei²⁹ babes berezia eskaintzen zaie heldu diren herrialdean asistentzia jasotzeko eta bizilekua izateko eskubidea emanaz.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2011ko apirilaren 5ean 2011/36/EB Zuzentaraua onartu zuten gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruz, Kontseiluaren 2002/629/JAI Erabakia ordeztzen duena. Zuzentaru honek sexuaren arabera pertsonen salerosketaren fenomenoaren berezitasuna aitortzen du; hau da, sarritan emakumeak eta gizonak helburu desberdinetarako tratatzen direla, lehenak esplotazio sexualaren baitan kokatzen baitira gehienak eta bigarrenak lan-esplotazioan. Hori dela eta, laguntza eta asistentziazko neurriak ere desberdinak izan behar dutela ondorioztatzen da, sexuaren arabera neurri desberdinak ezarriz. Hemen ere ikusten da arauaren joera prostituzioaren jardura ezabatzea dela.

Gainera, idatzi honetan biktima babesteaz gain, esplotazioan parte hartzen duten beste agente batzuen portaerak ere zigortzen dira. Ondorioz, pertsonen salerosketaren biktima direla jakiten duten erabiltzaileei zigorrak jartzea ezartzen die estatu kideei.

2014an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak esplotazio-sexuala eta prostituzioari buruzko txosten³⁰ bat publikatu zuten eta bertan ezarri zen prostituzioa esklabotza mota bat dela, bateragarria ez dena pertsonaren duintasunarekin eta haren oinarrizko eskubideekin. Are gehiago, prostituzioak merkatu bat osatzen duen negozio gisa funtzionatzen duela adierazi zuen, non elkarrekin konektatutako hainbat eragile eta proxenetek parte hartzen duten etekinen titular gisa eta sexu-erosleek funtsezko papera

²⁹ Biktima babesteko betebeharrak 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaruaren dator ezarritako delituen biktimen oinarrizko eskubide, laguntza eta babesari buruzkoan. Gizakien salerosketaren eta sexu-indarkeria edo sexu-esplotazioaren biktimek bigarren mailako biktimizazioa, larderia edo errepresalia tasa handia jasateko joera dute. Horregatik, arreta berezia jarri behar da biktima horiek halako egoera baten arriskuan dauden ebaluatzerako orduan; arrazoi sendoak egon behar dira biktima horiek babes bereziko neurrien onuradun izango direla uste izateko. 1.a) artikuluan biktima nor den definitzen da: “*a persona física que haya sufrido un daño o perjuicio, en especial lesiones físicas o mentales, daños emocionales o un perjuicio económico, directamente causado por una infracción penal*”: <https://www.boe.es/doue/2011/101/L00001-00011.pdf>

³⁰ 2013/2103/(INI) Prozedura, Sexu-esplotazioari eta prostituzioari buruzko txostena eta horrek genero-berdintasunean duen eragina: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-7-2014-0071_ES.html?redirect#_part1_ref1

betetzen duten eskariaren eusle diren heinean. Prostituzioan, azken finean, egintza intimo guztiak merkataritza-balio batera murrizten dira eta gizakia bezeroaren eskura dagoen merkantzia soila bihurtzen da. Txostenak egiten duen adierazpenik nabarmenenetariko bat da behartutako eta borondatezko prostituzioaren artean bereizten duela, baina, alde batekoa zein bestekoa izan, oinarrian³¹ emakumearen aurkako beste indarkeria forma bat dagoela argi uzten duela.

Bestalde, Europako Parlamentuak 2021ean argitaratutako Ebazpenean³² aitortzen da pertsonen salerosketa generoagatik bereziki determinatua fenomeno delako. Izan ere, 2017an eta 2018an Europar Batasunean izan ziren sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima guztien ia hiru laurdenak³³ emakumeak eta neska adingabeak izan ziren eta hori, 2008az geroztik Europar Batasunean sarrien nabarmendutako esplotazio mota da. Pertsonen salerosketa antolatutako delinkuentzia aktibitatea izanik, eskarira eta onuretara bideratuta dago eta horrek esan nahi du erabiltzaileen eskariaren murriztea salerosketaren aurkako borrokaren funtsezko elementu izan behar duela. Gizakiaren duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikologikoaren urraketa suposatzen du, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Kartaren 5.3 artikuluko jasotzen den moduan. Bukatzeko, estatu kideei gogorarazten die Zuzentarauak pertsonen salerosketa prebenitzeko eta biktimei babesari eskaintzeko araudi minimoa ezartzen duela eta derrigorrezkoa eta loteslea zaiela.

3. HIRUGARREN ATALA: PROSTITUZIOA ARAUTZEKO EREDUAK EBn

³¹ *CONSIDERANDO*: “A. la prostitución y la prostitución forzadas son un fenómeno con un componente de género y de dimensión mundial que afecta en torno a 40 - 42 millones de personas en todo el mundo, siendo la inmensa mayoría de las personas que se prostituyen mujeres y niñas y casi la totalidad de los usuarios hombres y que, por lo tanto, es al mismo tiempo causa y consecuencia de la desigualdad de género, lo que agrava aún más el fenómeno [...] E. la prostitución y la prostitución forzada están intrínsecamente ligadas a la desigualdad de género en la sociedad y tienen un efecto en la posición social de las mujeres y los hombres en la sociedad así como en la percepción de las relaciones entre mujeres y hombres y en la sexualidad [...] L. la gran mayoría de las personas que ejercen la prostitución proceden de grupos vulnerables”.

³² 2021eko otsailaren 10eko Europako Parlamentuaren Ebazpena, Gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzko 2011/36/EB Zuzentarauaren aplikazioari buruz (2020/2029/INI): https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2021-0041_ES.pdf

³³ Giza salerosketaren aurkako borrokaren aurrerapenari buruzko Batzordearen hirugarren txostena (2020), gizakien salerosketaren prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzko 2011/36/EB Zuzentarauaren 20. artikuluan eskatutakoari jarraiki (COM(2020)0661).

3.1. SARRERA

Orain arte, prostituzioaren erregulazioaren nazioarteko egoera nolakoa den aztertu da; orokorrean mundu mailan eta European indarrean dauden arauak zeintzuk diren adieraziz. Hemendik aurrera, hurrengo ataletan europar herrialdeetan egoera zehazki zein den azalduko da, prostituzioa erregulatzeko dauden lau perspektibei arreta emanez. Horretarako, lehendabizi, eredu erregulatzaileraren adibide diren Alemania eta Herbehereek sektore hori arautzeko hartutako neurriak ikusiko dira; hurrengo, abolizionismoaren erakusle den Suediar legea (*modelo nórdico* bezala ere ezagutua); gero sistema debekatzaileraren ezaugarriak emango dira eta azkenik, arau gabeko egoera edo alegaltatea zertan datzan ikusiko dugu, Espainiako estatuaren bitartez.

3.2. EREDU ERREGULATZAILEA

Lan-eredu gisa ere deitua, duela gutxiko jatorria duen sistema da –laurogeita hamarreko hamarkada–, prostituten erakundeak haien eskubideen aldeko aldarrikapenak egiten hasi zirenean sortu zena. Hau da, langile sexualen kolektiboek euren lan sektorerako eskubideak eta Gizarte Segurantzaren babesa aitortzea eta erregelamentarismoan³⁴ ezartzen ziren osasun-kontrolak bazter zitezen eskatu zuten. 80ko hamarkadako³⁵ prostituten auto-antolaketak emakume guztien arteko kontzientziazio eta elkartasunarekiko aldaketa garrantzitsu baten alde borrokatzen hasi ziren, sexu-langileek gainerako langileek bezalako zilegitasun politiko eta sozial bera izateko zuten eskubidea aldarrikatuz eta esplotazioari nola aurre egin erabakitzeke eskubidea defendatuz.

Erregulazionismoak lan hau garatzen dutenei estatutu juridiko bat bermatzeko neurriak ematea du helburu. Hau da, sexu-langileei eduki sozialeko oinarritzko eskubideak eman nahi dizkie beste edozein langileri bezalaxe. Eredu hau garatzeko oinarria izan den feminismo liberal³⁶ honek, laburtuz, prostituzioaren jarduna erregulatzeko sustatu zuen eta prostituzioa lantzat hartzean oinarritzen zen, ikuspegi kontraktualista bati helduz. Legitimoa den lana izanik, jada ez da prostituzioa norbere gorputza saltzeko ekintza

³⁴ ARONSON, G. “Rutgers Journal of Law & Urban Policy”, 2006

³⁵ SONTAG, MELISA “Sex Work Explored: Rethinking the Laws Regulating Prostitution”, *The Georgetown Journal of Gender and Law*, 2006,

³⁶ VIGIL, CARMEN eta VICENTE, M^a LUISA “Prostitución, liberalismo sexual y patriarcado”, 2006ko maiatza: <http://pmayobre.webs.uvigo.es/textos/varios/liberalismo.pdf>

iraingarri gisa ulertzen eta esklabotzaren³⁷ ideia baztertzen da; are gehiago, emakumearen ahalduntze gisa ulertzen da.

Herralde bakoitzak baimendu eta legalizatzen dituen prostituzio motak anitzak izaten dira. Izan ere, estatu bateko herralde edo eskualdeen artean burdeletako, eskolta-agentzietako, kaleko prostituzioko edo *freelance* izaerako langileei buruzko arauak aldatu egiten dira, batzuk ilegal eta besteak legal izanez (Weitzer 2012)³⁸. Arraroa da nazio batek prostituzio mota guztiak legezztatzea eta gehienetan, kaleko prostituzioa kriminalizatu egiten da. Ohikoa da, beraz, prostituzioa orokorrean erregulatua dagoen estatu batean jarduera hau egikaritzeko salbuespenak aurkitzea. Jarraian eredu hau barne araudian integratu duten estatuen legeak azalduko dira.

3.2.1. ALEMANIA

Prostituzioa 2002an erregulatu aurretik, garaian indarrean zegoen araudiak ez zuen berariaz prostituzioan aritzea debekatzen ezta burdelen eta antzeko negozioen kudeaketa ere. Hala ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak jarduera hori immoral eta dezentzia publikoaren kontrakotzat jotzen zuen eta beraz, prostitutek ez zuten ia eskubiderik³⁹. 2001ean Auzitegira heldu zen kasu batean ordea, epaileek prostituzioaren moralitasuna ikergarri ez zela argudiatzerakoan eta prostituzioarekiko gizarteak zuen tolerantzia⁴⁰ ikusirik, erregulazioaren beharra ikusi zuten legegileek.

³⁷ IGLESIAS, SKULJ “Prostitución: ¿hacia la legalización?”, 2012 (63-64 orr).

³⁸ WEITZER, RONALD “Legal Prostitution: The German and Dutch Models”, 2017ko urria, *Dual Markets: Comparative Approaches to Regulation* liburutik (365-385 orr).

³⁹ Ikus. Alemaniar Kode Zibilaren 138.artikulua (*Bürgerliches Gesetzbuch*). Bertan adierazten da legezko trantsazioak deusezak direla immoralak direnean. 2002ko Legea indarrean jarri zen arte, prostituzioa egintza “immoraltzat” hartzen zen, jarduera honetan aritzen ziren pertsonak babes segururik ez zuten jasotzen eta egoera sozial larrian geratzen ziren. Laburtuz, euren eskubideak erreklamatzeko atak ixten zitzaizkien - emandako zerbitzuengatik ordainsariaren erreklamazioa gehienetan-.

⁴⁰ 1999ko inkesta batean, alemaniarren %68k prostituzioaren legalizazioa babestu zuen. Duela gutxi World Values Surveyk jakinarazi du prostituziorako tolerantziarik txikiena zuten alemanen proportzioa Herbehereetakoa baino altuagoa zela: prostituzioa "inoiz justifikatu" ez zutenen kopurua %23koa zen 2006an eta %28koa 2013an. WEITZER, RONALD «Legal Prostitution: The German and Dutch Models», 2017ko urria, *Dual Markets: Comparative Approaches to Regulation* liburutik (365-385 orr).

2002ko Prostituzio Legea⁴¹ Alemaniako sexu langileen bizi eta lan-baldintzak hobetzeko garaiko gobernu federalaren saiakera bat izan zen. Idatzi honek ezabatu egin zuen prostituzioa *sittenwidrig* bezala izendatzea ("ohitura onen kontrakoa" esan nahi duen alemaniar zuzenbideko termino bat) eta horrela, gainerako langileekiko oinarrizko desabantaila juridiko bat suposatzen zuena kendu zien sexu langileei.

Dena dela, Prostituzio Lege hau labur geratzen zen beste hobekuntza batzuk lortzeko⁴². Horregatik 2017ko uztailaren 1ean indarrean sartu zen Prostituten Babeserako Legea (*Das Prostituiertenschutzgesetz*)⁴³. Prostituta gisa lan egiten duten pertsonen beren eskubide eta betebeharrak buruzko informazioa ematea da araudi berriaren helburua eta behar izanez gero, beren eskubideak erabil ditzaten eta laguntza bila dezaten bultzatzea. Prostituzio Legea eta Prostituten Babeserako Legea prostituta guztiei, haien bezeroei eta prostituzio-establezimenduetako operadoreei aplikatzen zaizkie Alemania osoan. Prostitutek jakin eta bete beharko lituzketen bestelako lege eta erregelamenduak norbere edo besteren konturako lanean aritzen direnaren arabera eta lan egiten duten udalerriri edo estatu federalaren arabera ere bada. Izan ere, ordenantza federal batek edo eremu mugatuko ordenantza batek prostituzioa debekatu dezakete udalerriri edo eremu jakin batean.

Prostituten Babeserako Lege honek aurreko legearekiko bi berrikuntza ezarri zituen. Alde batetik, prostitutek beren lana erregistratzeko betebeharra dute; beraz, inor ezin izango da lanean hasi ahalik eta erregistratuta ez badago. Betebehar hau sexu-zerbitzu emaile guztiei aplikatzen zaie euren lan egiten duten tokia zein den kontuan izan gabe. Behin behar bezala erregistratuta, ziurtagiri bat ematen zaie uneoro eurekin eraman behar dutena eta lanean ari direnean bezeroei, burdel edo agenzia bateko operadoreei naiz ikuskapen ofizial batean erakutsi behar dutena. Bigarren, erregistratu aurretik osasun kontsultara joateko betebeharra ezartzen da gaixotasunei, haurdunaldiari,

⁴¹ D. CZARNECKI, H. ENGELS, B. KAVEMANN, W. SCHENK, E. STEFFAN eta D. TÜRNUAU «Prostitution in Germany – A Comprehensive Analysis of Complex Challenges», Pertsonen trafikoari buruzko ahokularia: Naile Tanis, 2014ko apirila: https://spi-research.eu/wp-content/uploads/2014/11/ProstitutioninGermanyEN_main.pdf

⁴² Robert Koch Institutuak (2010-2011) sexu-lana eta STIak egiten dituzten pertsonen kolektiboari buruz egindako azterlan batean egiaztatu zen Alemanian prostituzioan aritzen diren pertsonen %73ak jatorri immigrantea duela, gehienak Bulgariatik, Errumaniatik, Poloniatik eta Hungariatik etorritako emakumeak izanik.

⁴³ Familien, Adinekoen, Emakumeen eta Gazteen Ministerio Federalaren “Prostituten Babeserako Legea”, 2017ko uztailaren 1a.

antisortzeari eta alkohol nahiz droga abusuen gaineko osasun gomendioak jaso ditzaten. Agiri hau nahitaezkoa da erregistratu ahal izateko eta hamabi hilean behin egin behar da –sei hilabetero 21 urte baino gutxiago izanez gero–.

3.2.1.1. *Gizarte Segurantzako Babes Ekonomikoa*

Prostitutak, araudi berri honen baitan, auto-enplegatuak izan daitezke edo enpresaburu batentzat lan egin dezakete, eta hori erroldatzerakoan adierazi beharko dute aplikagarri zaien gizarte-estaldura (babes soziala) desberdina delako. Arlo honetan aipatzekoa da langabezia asegurura prostitutek eskuratu duten betebeharrak berri bat dela, zeinaren bidez enplegu faltan euren diru-sarrera gabeko egoeran babesten diren. Izan ere, Alemanian langabezia aseguru izatea derrigorrezkoa da ez soilik langile, baizik eta enpresaburuentzat ere.

3.2.1.2. *Osasun babesa eta kontrola*

Alemanian, aseguru derrigorrezkoa da. Honek esan nahi du bertan bizi den pertsona orok osasun aseguru behar duela. Horretarako, bi aseguru mota eskaintzen dira: Estatuak eskaintako babes publikoa eta osasun-aseguru etxeen babes pribatua. Honekin batera, badago beste aseguru mota bat zaintza aseguru deritzona eta aurrekoa bezala, derrigorrezkoa dena. Estatuko erakundeek menpean babestutako aseguru guztiek automatikoki zaintza aseguru ere badute.

3.2.1.3. *Emakumeen sexu-autodeterminazioa babesteko neurriak*

Legeak prostitutak eta haien sexu-autodeterminazioa eskubidea babesten du, *Weisungsverbot* deituriko debekuaren bidez. Lege honen arabera, enplegataileek ezin dute zehaztu prostitutek nola ematen dituzten zerbitzu sexualak eta zein neurritan, sexu-langileen eta bezeroen arteko kontua baita; prostituten eskubide pertsonalak ezingo dira mugatu.

3.2.1.4. *Sexu-langileen lantokiak*

Hiru motatako lantoki bereizten dira nagusiki: apartamentu pribatuak, ate irekiko establezimenduak eta kaleko lana. Honen arabera bereizten dira sexu-langileen kategoriak ere⁴⁴. Burdelek kalitate-ziurtagiria behar dute eta jabeek ezin dute aurrekari

⁴⁴ TAPIA ATIKA, IRATI «Debate sobre la prostitución: Regulacionismo y Abolicionismo», Gradu Amaierako Lana, Zuzendaria: Arantza Campos Rubio, 2016-

penalik izan. Normalean halako espazioetan garatutako lana da araubidez erregulatuta dagoena, apartamentu pribatuetan eta kalean egindakoa zailagoa baita kontrolatzen. Funtzionamenduan dauden burdelek lizentzia behar dute eta horrek Estatuari ahalbidetzen dio hauen gaineko inspektzioak egitea eta establezimendu hauen kopurua kontrolatzea. Baimena eman aurretik, lizentzia eskatu duen pertsona prostituzio negozio bat izateko bezain fidagarria ote den egiaztatuko du agintariak, legezko arauak betetzen direla ziurtatuz.

3.2.2. HERBEHEREAK

2000. urteko urriaren 1ean Herbehereak prostituzioaren ia alderdi guztiak legeztatu zituen lehen europar herrialdea izan zen sexu-zerbitzuen ematea lan gisa ofizialki aitortuz 1911eko Prostituzio-establezimenduen Gaineko Debeku Orokorra Ezabatzeke Legearen bitartez. Zigor Kodean pertsonen salerosketari buruzko 250a artikulua indarrean sartu zen, prostituzioaren sektorean gauzatutako esplotazio modu guztiak zigorgarri bihurtuz eta 2005ean, edukia zabaldu zen giza trafikoaren bestelako formak sartuz.⁴⁵

Labur esanda, prostituzioaren negozioa zilegizkoa da, betiere negozioaren jabeak lizentzia lortzen badu eta udal-arauek kontrakorik esaten ez badute. Une honetan ez dago prostituzioari buruzko estatuko araurik Herbehereetan, izan ere, administrazio-

2017: *“Las regulacionistas ponen el foco de atención, no en la institución prostitucional, sino en la voluntad subjetiva de cada individuo. En este sentido, hacen una distinción grosso modo de tres tipos de prostitutas. Por un lado, está la trata, la prostituta forzada. [...] Por otro lado, tenemos a la mujer que, sin ser víctima de una red, ve que la única (o la más rentable) salida económica que le queda es la prostitución. Finalmente tendríamos a la prostituta voluntaria que quiere dedicarse a ello profesionalmente aun teniendo otras opciones a su alcance [...] conocidas como “de lujo”:*

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/22635/TFG_Irati_Tapia_%20Ateka.pdf?sequence=1&isAllowed=y

⁴⁵ WIJERS, MARJAN «Prostitution Policies in the Netherlands», 2008ko maiatza, *Sex Work Europe* aldizkarian: *“The criminal law (now article 273f CC) prohibits: a) Any involvement, recruitment or exploitation of minors (<18 year) in the sex industry, independent of conditions of coercion, deceit or abuse of authority; b) Any use of coercion, (threat of) violence, deceit or abuse of authority in relation to adult persons, both with regard to conditions of recruitment and conditions of work; and/or profiting from the prostitution of another person under the aforementioned conditions; c) Recruitment for prostitution across borders, independent of the use of coercion, (threat of) violence, deceit or abuse of authority.”:*

https://www.sexworkeurope.org/sites/default/files/resource-pdfs/wijers_m_pros_policies_nl_2008.pdf

erantzukizuna tokiko gobernuaren mailan jartzen da; horrek esan nahi du udalerriak direla prostituzio-politikak betearaztearen arduradun. Ordenantza bidez erregulatu eta kontrolatzen da udalerrri bakoitzean gauzatu daitekeen prostituzioaren jarduna.

2009ko azaroaren 10ean “Prostituzioaren araubideari eta sexu industriako abusuen aurkako borrokari” buruzko lege proposamena aurkeztu zen⁴⁶; WRP laburtuz. Proposamenaren muina sexu industriaren erregulazioa zorroztea da, prostituzio politikaren zenbait aspekturi esparru nazional eta berdin bat emanez. WRP-ren arabera, prostituzioa debekatuta egongo da udalak negozioei lizentzia eman ezean. Helburua lizentzia-sistemaren bitartez prostituzio-negozioaren kudeaketaren funtsezko alderdiak babestea da. Negozioaren jabeak behartuta egongo dira euren enpresaren kudeaketa eta enplegatzen dituzten sexu-langileei buruzko datuak administrazioaren eskura jartzera eta sexu-langileentzako agindu erregistro bat jasotzen du. Legegileak ulertzen du lizentziadun negozioen eta bertan lan egiten duten sexu-langileen egoera ikuskatzea errazagoa izango dela⁴⁷.

2011ako martxoaren 29an lege proposamena zenbait aldaketekin onartu zen. Lege proposamenaren helburuak gorabehera, esan behar da erregistro eta egiaztapen betebeharrak gatazkatsuak suertatu direla eta erresistentzia handia sortu dela prostituzioaren⁴⁸ eta zaintzaren sektoretik⁴⁹.

Hitz gutxitan esanda, Herbehereetako prostituzio lege berria sexu langileen erregistro nazional bat sortzeko saiakera bat da. Erregistratu ahal izateko administrazio-entitateek baimen bat igorri behar dute eta horretarako, sexu langileak gutxienez 21 urte izan behar ditu, Herbehereetan lan egiteko baimena behar du eta *autofidantzazko*⁵⁰ proba deritzona

⁴⁶ 2009/2010 Herbehereetako Parlamentu Paperak II, 32 211, 1-2 zenbakiak; DAALDER, ANNELIES «Prostitution in the Netherlands in 2014», 2015eko apirila, *Research and Documentation Centre* (WODC) gidaritzapean (11-12 orr.).

⁴⁷ WERKMAN, KARIN «Briefing on legal prostitution in The Netherlands: policies, evaluations, normalisation», 2016ko ekaina: <http://feminismandhumanrights.org>

⁴⁸ Ikus. «New Prostitution Law Netherlands Will Have Opposite Effect», *Amsterdam Red Light District Tour*, 2019ko azaroaren 6ean: <https://www.amsterdamredlightdistricttour.com/news/prostitution-law-netherlands/>

⁴⁹ DAALDER, ANNELIES «Prostitution in the Netherlands in 2014», 2015eko apirila, *Research and Documentation Centre* WODC gidaritzapean; Ikus. https://www.eerstekamer.nl/wetsvoorstel/32211_wet_regulering_prostitutie eztabaida eta lotutako dokumentu guztiak aztertzeko.

⁵⁰ I.W. OPSTELTEN, Herbehereetako Segurtasun eta Justizia Ministroaren 119 zenbakidun gutuna, 2014ko ekainaren 24a (4.orr): “*Amsterdam's municipal council*

gainditu behar du. Proba hori funtzionario batekin egin beharreko elkarrizketa bat da, zeinak erabakitzen duen sexu-lanetan arituko den pertsona sektore horretan parte hartzeko bezain “fidagarria” den. Sexu-langileak erregistratzera behartzearen arrazoia prostituzio industriaren ikusgarritasun eta ulermen handiagoa izatea da, beharrezkotzat jotzen baita gizakien salerosketa eta bestelako esplotazio motak eragozteko.

3.2.2.1. Osasun babesa eta kontrola

Langileek egin beharreko osasun-kontrolari dagokienez esan behar da udaletxeen lana dela osasun-arreta sexu-langileentzat eskuragarri uztea eta euren kontrako derrigorrezko neurririk ez (azterketa medikoak egitera behartzea, etab) hartzeari dagokionez. Horri dagokionez, burdelen titularren erantzukizunetako batzuk dira sexu-politika segurua eramaten dela ziurtatzea⁵¹, euren langileei informazio jardueretara joateko aukera ematea eta aldian-aldian sexu-transmisiozko gaixotasunen azterketak egitera animatzea. *Soa Aids Nederland* Sexu transmisiozko Gaixotasunen Aurkako Fundazioak⁵² mediku eta espezialistentzat gidalerroak ezarri izan ditu prostituzioan aritzen diren pertsonen gaixotasun horiek kontrolatzeko egin behar dituzten azterketei buruz.

Oro har, berariaz erabaki da prostituzioan aritzen diren pertsonentzako derrigorrezko osasun-azterketak egiteko betebeharririk ez ezartzea; hala balitz, betebeharririk hori estigmatizatzailea izango litzateke, sexu-langileak infekzio-iturri direnaren ideia elikatzen baitu.

3.2.2.2. Sexu-langileen lantokiak

enacted an amended Algemene Plaatselijke Verordening (APV) (General Municipal By-law) regarding prostitution on 4 July 2013. The municipality included the term 'zelfredzaamheid' (self-reliance) as a requirement for prostitutes to be able to work in Amsterdam's licenced prostitution sector. In doing so, Amsterdam complies with Section 3 of the Wrp draft decree which states that the operator forms an opinion over the degree of self-reliance of the prostitute before she starts to work for or with him”.

⁵¹ Kontrakotasuna: DAADLER, ANNELIES: “*It should also be noted that nearly all respondents feel that the safety and hygiene of workplaces could be improved*”.

⁵² HIESaren eta sexu-transmisiozko gaixotasunen aurka borrokatzen duen Herbehereetako Fundazioa da. Prostituzioaren sektorean HIESari eta sexu-transmisiozko bestelako gaixotasunei buruzko informazioa koordinatzen du. Batez ere prostituzioaren barneko hainbat talderi informazioa ematera zentratzen da; batik bat sexu segurua praktikatzeko ez dutenei, immigraanteei, droga kontsumitzaileei eta prostituta transgeneroei: <https://www.soaids.nl/nl>

Gaur egun, adinez nagusi diren eta beren borondatez lan egiten duten sexu-langileak dituen establezimenduak baimenduta daude, baldin eta jabeak eskatzen den udal- lizentzia⁵³ badu eta ezartzen zaizkion betekizunak eta baldintzak betetzen baditu.

Legedia berri honen bidez, bi helburu⁵⁴ lortu nahi dira nagusiki. Alde batetik, prostituzioaren ustiapenaren kontrola eta erregulazioa ziurtatzea udalerriek lizentzia- politika ezarriz, horri esker lortuko baita prostituitzen diren pertsonen posizioa babestea. Bigarren, behartutako prostituzio esplotazioaren aurkako borroka sendotu nahi da, adingabeak sexu-abusuen aurka babestu nahi dira eta legez kanpo jardundako prostituzioaren irismena murriztea bilatzen da. Hau da, lan-eredu bati jarraiki, borondatez jardundako adin nagusikoen prostituzioa formalki lana da⁵⁵ bestelako egintza kriminaletatik bereiztu baita⁵⁶.

Hala ere, garrantzitsua da esatea aitorten formal horrek erreferentzia egiten diola burdel eta antzeko prostituzio-etxeetako sexu-lanari eta nolnahi ere, debekatuta dagoela kalean garatutako prostituzioa. tokiko ezaugarriak hobeto arautzeko⁵⁷; honi jarraiki, eurak izango dira lizentzia emateen arauak ezarriko dituztenak. Prostituzioan jarduten duen enpresa baten jabe izan ahal izateko, lizentzia lortu aurretik udalerrri konkretuak ezarritako baldintzak bete behar dira. Dena dela, eskualde guztietan lizentziaren eskakizuna ez da derrigorrezkoa “lizentziarik gabeko legezko prostituzioa” existitzen baita⁵⁸.

⁵³ Herbehereetako Justizia eta Segurtasun Ministerioak Estatu Nagusietako Ordezkarien Ganberako lehendakariari bidalitako gutuna, 2015eko apirilak 14a (Erreferentzia zenbakia:

633280):<https://www.government.nl/topics/prostitution/documents/parliamentary-documents/2015/06/01/letter-to-parliament-about-regulation-of-prostitution-and-combating-abuses-in-the-sex-industry-wrp>

⁵⁴ DAALDER, ANNELIES., «La prostitución en los Países Bajos tras el levantamiento de la prohibición de los burdeles», WODC, 2007 (11 eta hurrengo orr.): <https://www.wodc.nl/documenten/jaarverslagen/2008/06/02/jaarbericht-2007>

⁵⁵ AYUBI MEJÍA «La Prostitución en el contexto laboral internacional», 2013 (29.orr); GONZÁLEZ DEL RÍO «El ejercicio de la prostitución y el derecho del trabajo», 2013 (29.orr)

⁵⁶ ALTINK, S. «La prostitución a debate. Por los derechos de las prostitutas», BRIZ/GARAIZÁBAL koordinatzaileak, 2007 (109-110 orr).

⁵⁷ Herbehereetako Atzerri Arazoetako Ministerioaren argitalpena «Dutch Policy on Prostitution - Questions and Answers 2005», 2005: <https://prostitution.procon.org/wp-content/uploads/sites/50/netherlands.pdf>

⁵⁸ DAALDER, ANNELIES «Prostitution in the Netherlands in 2014», 2015eko apirila, *Research and Documentation Centre* (WODC) gidaritzapean (18-19 orr.): “*This will no*

Bestalde, aipatu behar da 2006arekin konparatuz, azken urteetan erakusleihoko burdelen jeitsiera nabarmena izan dela eta kaleko prostituzioa eta eskort-agentziak hazi egin direla. Honek zerikusia dauka zenbait udalerrik hartutako lizentzia-sistema berriarekin⁵⁹.

3.3. EREDU ABOLIZIONISTA

Abolizionismoak mugimendu feministaren baitan dauka jatorria⁶⁰ XIX. mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkaden arteko Britainia Handian. Prostituzioaren arauzko sistema salatu nahi zuen ideologia eta mugimendu politiko gisa gorpuztu zen. Horren baitan, ordena patriarkalaren alderdi ezberdinak zalantzan jartzen zituzten borroka desberdinak zeuden eta horietako batek, prostituzioari buruzko ideologian finkatu zuen bere ikuspegia. Erregelamentarismoaren ideologia tradizional horrek adierazten zuen emakumeen prostituzioa saihestezina, normala eta naturala zela, beti egon izan dela eta beti egongo zela gizonen premia sexual “kontrolaezinen” ondorioz (moral sexual bikoitza)⁶¹.

Mugimendu politiko hau, beraz, Ingalaterran 1864, 1866 eta 1869ko Gaixotasun Kutsagarriari buruzko Legeak aldarrikatzearen ondorio zuzen bezala sortu zen, armadan sexu-transmisio bidezko gaixotasunen kutsatzea geldiaraztea helburu zutenak. Hala ere, 1869ko Legea izan zen protesta-mugimendu nabarmena eragin zuena. Era horretan,

longer be possible once the WRP is enacted. The operation of prostitution will then be prohibited, unless a license has been granted”.

⁵⁹ Esaterako, Amsterdamen orain lizentziak negozio bakoitzeko ematen dira eta ez leiho bakoitzeko eta gainera, Utrecht, Amsterdam, Alkmaar, Arnhem eta Deventer bezalako herrietan halako leihoak zeuzkaten negozioak itxi egin dira udaletxeen aginduz. Ikus. besteak beste: «Illegal Prostitution In Smaller Cities in the Netherlands», 2017ko irailaren 1a, *Amsterdam Red Light District Tour* web orrialdean argitaratua: <https://www.amsterdamredlightdistricttour.com/news/illegal-prostitution-in-the-netherlands-flees-to-small-cities-and-towns/>; «Netherlands to consider total ban on prostitution after 40,000 sign petition», 2019ko apirilak 10a, *Mirror UK* egunkariaren web orrialdean: <https://www.mirror.co.uk/news/world-news/netherlands-consider-total-ban-prostitution-14274275>

⁶⁰ ESCOBEDO MURGUEZA, ISABEL «El movimiento abolicionista de la prostitución durante la II República», *Veinte años de congresos de Historia Contemporánea (1997-2016): X Congreso de Historia Local en Aragón*, Carlos Forcadell Álvarez eta Carmen Frías Corredor-ek koordinatua, 2017 (313-314 orr).

⁶¹ DE MIGUEL ÁLVAREZ, ANA eta CERMEÑO PALOMO, EVA «Los inicios de la lucha feminista contra la prostitución: políticas de redefinición y políticas activistas en el sufragismo inglés», *Brocar-Cuadernos de investigación histórica* - 35. zenbakia, 2011, (319-323 orr): <https://ifc.dpz.es/recursos/publicaciones/36/12/21escobedo.pdf>

klase ertainetako inkonformista, feminista eta langile erradikalek lege horiek inmoraltzat eta emakumeen⁶² eskubide zibilen kontrakotzat jo zituzten, eta horiek indargabetzearen alde egin zuten. Borroka antolatzeke urte horren amaieran *Ladies national Association for the Repeal of the Contagious Diseases Acts* (LNA) sortu zen, Elizabeth Wolstenholme eta Josephine Butler feministak lider zituela. Hala ere, Butlerrek bere herrialdean sistema honen aurka borrokatzeaz gain, 1874an Parisera bidaiatu zuen kontinentean zehar bere ideiak azaltzeko eta horrela sortu zen, 1875ean, *Internacional Abolitionist Federation*. Printzipio hauek 1949ko Pertsonen Salerosketa eta Besteren Konturako Prostituzio Esplotazioari buruzko Hitzarmenean jaso ziren (bigarren atalean azaldu dena).

Eredu honen baitan, ordenamendu juridikoak despenalizatu egiten du prostituzioaren jarduna eta prostituitzen den pertsona jardueraren beraren biktimatza hartzen da. Arau penalek inoren prostituzioaren onuradun direnen jokabidea soilik tipifikatzen dute; are gehiago, egitateak baloratzean ez da kontuan hartzen biktimak baimenik eman duen ala ez. Sistema honen bidez pertsonen sexu-merkataritza saihestu nahi da prostituzioari buruzko araudi oro ezeztatuz, prostituzioa gauzatzen den establezimenduak itxiz eta prostitutak poliziaren eta osasuneko erregistroetan inskripzioa kenduz.

3.3.1. SUEEDIA

Suediako emakumeen mugimenduak hainbat urtez hasitako eztabaida publikoaren ondoren 1999ko urtarrilaren 1ean sartu zuten indarrean politikari feministek Sexua Erosteari buruzko Legea (*Sexual Purchase Act*). Prostituzioaren eta sexu-esplotazioarako pertsonen salerosketaren aurka egituratutako politika ezarri zuen lehen herrialdea izan zen; nazioartean, aurreko atalean ikusi den bezala, bazeuden prostituzioa debekatzeari buruzko arauak, baina estatu batek bere barne-araudian ofizialki halakoa sartu zuena Suedia izan zen; handik hamar urtera, Norbogia⁶³ eta Islandiak lege bera adoptatu zuten

⁶² WALKOWITZ, JUDITH «Vicio masculino y virtud feminista: el feminismo y la política sobre la prostitución en Gran Bretaña en el siglo XIX», *Double standards: Gizonak ere sexu bidezko gaixotasunen transmititzaile izan arren, emakume prostitutak ziren mediku-azterketa umiliagarriak egitera behartutakoak eta poliziak kontrolatu eta jarraitzen zituztenak. Kutsatuta zeudela jakitean ospitaleko tratamenduetara joateko betebeharra ezartzen zitzairen eta uko eginez gero, espetxeratze zigorrei egin behar zieten aurre.*

⁶³ AHLIN, MARIA “The Swedish Law (on prostitution), *Freethem, urtea?* (5.orr): <https://www.antiprostitutie.ro/docs/The%20Swedish%20Law.pdf>: “Ten years later, 2009, Norway and Iceland implemented the exact same law – except for the fact that

eta 2016an, Frantziak ildo beretik zihoan legea erredaktatu zuen, “eredu nordikoa” bezala dena egituratuz. Suediak, arau honen bitartez prostituzioarekiko eta sexu-esplotaziorako salerosketarekiko zero tolerantziako politika⁶⁴ ezartzen du. Honakoa dio Suediar Zigor Kodeak: “*A person who, otherwise than as previously provided in this Chapter [of the penal code], obtains for themselves a casual sexual relation in return for payment, shall be sentenced for purchase of sexual service to a fine or imprisonment for at most one year. The provision of the first paragraph also apply if the payment was promised or given by another person*”

Sexua Erosteari buruzko Legearen arrazoi nagusia da gizarteak beharrezkoa ikusten duela prostituzioaren aurka borroka egitea. Prostituzioa sexua erosten edo saltzen dutenentzat eta gizartearentzat kalte handia eragiten duen aktibitatea dela aitortzen da; legearen helburua zigorgarritasuna eroslearen gain jartzea da. Suediar Legeak horren ondorioz, prostituzioaren eta sexu-trafikoaren, abusuen eta droga-trafikoaren artean lotura estua dagoela ulertzen du. Prebentziorako lege bat da gehien bat, hasiera batean ez baita bilatzen poliziak erosleak atxilotu eta zigortzea, santzioak aurreikusita dauden arren. Asmoa gizartean sexua ez erostearen kontzientzia zabaltzea da eta ez soilik gizarteak dituen giza balioen aurka doalako, baizik eta gizabanakoak (eta haien familiak) kaltetzen dituelako.

Ideologia abolizionista oinarri hartuta sortutako legedia denez, prostituitutako emakumeak eta neskek gizonen indarkeriaren biktimatzat hartzen dira eta beraz, ez dira jazarri edo zigortu behar. Prostituitutako horiek ahulagotzat⁶⁵ jotzen dira, proxenetek eta sexu-zerbitzua erosten dutenek esplotatzen dituztenak. Aitzitik, egoera horretatik ihes egiteko laguntzak jasotzeko eskubidea dute, proxenetek eta trafikatzaileek ahultasun egoera hori erabiltzen baitute esplotatzeko. Bizi dituzten baldintza politiko, ekonomiko eta sozialak gainerako gizartearenak baino okerragoak izan ohi direnez, genero-berdintasuna sustatuko duten garapen-neurriak eta berariaz emakumeak ardatz dituzten gizarte-programak txertatzea du helburu Legeak.

Norway took it one step further and actually made it illegal for Norwegian citizens to pay for sexual service also in other countries”. Honek aukera ematen dio Gobernuari turismo sexuala jarraitzeko.

⁶⁴ OLSON, JAY “Prostitution Policy in Sweden - Targeting Demand”, The Swedish Institute, 2019 (3-18 orr): [https://sharingsweden.se/app/uploads/2019/02/si_prostitution-in-sweden_a5_final_digi .pdf](https://sharingsweden.se/app/uploads/2019/02/si_prostitution-in-sweden_a5_final_digi.pdf)

⁶⁵ BARRY, K. “Female Sexual Slavery”, 1981 (45-49 orr).

Rapporteur Nazionalak prostituzioaren eta pertsonen salerosketaren izaera, egoera eta eskala⁶⁶ aztertzen ditu Suedia barnean eta kanpo, urtero txostenak argitaratzen ditu gomendio zabalekin. 2011az geroztik, eta Polizia Nazionalarekin elkarlanean, Rapporteur Nazionalak polizia-agintarien ikuskapenak egiten ditu gizakien salerosketa eragozteko eta borrokatzeko egiten dituzten ahaleginei buruz, baita giza trafikoaren kasuak ikertzeko, helburu sexualak lortzeko eta zerbitzu sexualak erosteko duten gaitasunari buruz ere. Polizia eta funtzionario publikoak gai honetan trebatzeko inbertsioak bideratu dira Gobernutik. 1999an, Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko Legeari jarraiki, Osasun eta Ongizate Batzorde Nazionalak (*National Board of Health and Welfare*, NBHW) Suedian prostituzioaren hedapenari eta garapenari buruzko informazioa biltzeko eta ikuskatzeko ardura hartu zuen, baita bertako agintariei prostituzioaren aurkako neurrien garapenari eta hobekuntzari buruzko laguntza ematekoa ere. Bi alde hauek elkarlanean aritu dira eta Suediar Gobernuari urtero txostenak bidaltzen dizkiote.

Legea indarrean jarri zenetik, ebaluazio independenteek beherakada⁶⁷ nabarmenak aurkitu dituzte prostituzio-merkatuen tamainan⁶⁸. 1995ean, gobernu nazionalaren txosten batek argitaratu zuen gutxi gorabehera Suedian 2500-3000 prostituitutako emakume zeudela, horietatik 650 kaleko prostituzioan. 1998an, kaleko prostituzioa are altuagoa zela balioetsi zen eta 2008an egindako ikerketa baten arabera 300 emakume inguru identifikatu ziren. Prostituzio eskaria handitu ziren Danimarkan⁶⁹ eta Norbegan epe berean.

⁶⁶ EKBERG, GUNILLA S. "Swedish Laws, Policies and Interventions on Prostitution and Trafficking in Human Beings: A Comprehensive Overview", 2016ko ekainaren 16a, 2018ko otsailaren 24an eguneratua (2-17 orr): <https://feminismandhumanrights.files.wordpress.com/2014/06/brief-law-and-policies-on-prostitution-and-thb-sweden.pdf>

⁶⁷ Kontrakotasuna: JORDAN, ANN «La ley sueca de penalización de los clientes: un experimento fracasado de ingeniería social», *American University Washington College of Law*, 2012ko apirila: <https://www.nswp.org/sites/nswp.org/files/LA%20LEY%20SUECA%20DE%20PENALIZACI%C3%93N%20DE%20LOS%20CLIENTES.pdf>

⁶⁸ WALTMAN, MAX «Sweden's Prohibition of Purchase of Sex: The Law's Reasons, Impact, and Potential», *Women's Studies International Forum*, 2011

⁶⁹ COY, MADDY; PRINGLE, HELEN eta TYLER, MEGAN «The Swedish Sex Purchase Law: evidence of its impact Nordic Model Information Network», 2016 uztaila: https://www.catwa.org.au/wpcontent/uploads/2016/12/NMIN_briefing_on_Sweden_Jul

3.3.2. IPAR IRLANDA

Ildo honetatik jarraituz, esan behar da Iparraldeko Irlandan eta Ingalaterran bizi den egoera bestelakoa dela. 2014ra arte, biek antzeko legeak zeuzkaten: prostituzio autonomoa legala zen baina toki publiko batean sexu-zerbitzuak eskaintzea edo burdel bat mantentzea eta proxenetismoa debekaturik zeuden. Urte horren bukaeran, Stormonteko Asanbladak delitu bihurtu ziten prostituzio eskaintza eta eskaria “Pertsonen Salerosketa eta Esplotazioari buruzko Legearen (Biktimentzako Justizia Penala eta Laguntza)”⁷⁰ bitartez, 2015eko ekainaren 1ean indarrean jarri zena. Debeku leun edo toleranteago bat hartu zuen lehen britainiar lurraldea bihurtu zen, erdibideko debeku eredia ere baderitzona. Batzuen usten sistema debekatzaillearen planteamendu leunago bat suposatzen du (*pseudo-prohibicionista*) eta beste batzuentzako sistema abolizionistaren ikuspuntu zorrotzago bat da. Izan ere, prostituten jarduna delitutzat hartzen den arren, salerosketaren biktima izan direnentzako birgaitze eta laguntza planak sortu dira. Legeak babes publikoa jaso zuen 2014ko urrian egindako inkesta⁷¹ baten arabera.

3.4. EREDU DEBEKATZAILEA

XIX. mendearen amaieran sortu zen sistema arauemaileak sexu bidez transmititzen diren gaixotasun kontrolatzeko gai izan ez zelako, baita prostituzioa bera ere⁷². Eredu honetan prostituzioa “delitutzat” hartzen da segurtasun publikoa, osasun publikoa eta morala (edo dezentzia) bezalako ondasun juridikoen aurka egiten duelako. Sistema hau eredu ideologiko eta kontserbadore baten ondorio da, non morala eta zuzenbidea nahasten diren prostituzioa “bizio moralizat” hartuz. Familia kristaua babesten duten gizarte kristauean nagusi da prostituzioa mendebaldeko familiaren nozioaren aurkako bekakua dela uste baitu. Prostitutak zuzenbidearen aldetik zigortzeaz aparte, kondena

[y_16.pdf](#): “*In Denmark, where purchase of sex is legal, an increase was observed from 3,886 persons being prostituted in 2002 to 5,567 visibly prostituted persons in 2007*”.

⁷⁰ «Royal Assent for Trafficking Bill», *BBC News* egunkarian, 2015eko urtarrilaren 14an: <https://www.bbc.com/news/uk-northern-ireland-30805990>

⁷¹ McMAHON, VICTORIA «Vast majority back calls to make paying for sex illegal», *Irish Mirror* egunkarian argitaratua, 2014ko urriaren 17an: <https://www.irishmirror.ie/news/irish-news/crime/vast-majority-back-calls-make-4455239>

⁷² Sistema debekatzaillearen jatorria ezagutzeko ikus. IGLESIAS SKULJ «Prostitución: ¿hacia la legalización?», VILLACAMPA ESTIARTE koordinatzailea, 2012 (61.orr).

morala jartzen ezartzen zaie, euren kriminalizazioa areagotuz⁷³. Moral sexual katolikoak prostituzioa gaitzesten du, bai emakumearentzat bai gizonarentzat –emakume prostitutari garrantzia emanez, bera baita zerbitzuaren eskaintzaile–, prostituziogile zein bezero izan, beste norbaitengandik plazer sexuala lortzeagatik ordaintzen duenak ere bekatua egiten baitu⁷⁴.

Sistema honen menpean (teorian) Estatuak zigor penala ezartzen die hiru aldeetako bakoitzari; hau da, prostituzioan aritzen den pertsonari, proxenetari eta bezeroari. Baina errealitatean ikus daiteke zigorra prostituzioan aritzen direnei eta sexu zerbitzuak eskaintzen dituztenei ezartzen zaiela. Zigorrek normalean arlo penalekoak izaten dira, isunak eta kartzela zigorrek, baina badaude estatu batzuk non zigorrek arau-hauste administratibotzat kalifikatzen diren (Bielorrusia eta Lituania, adibidez).

Hau da, eredu honen aldekoek adierazten dute Estatu merkantilizatutako ustelkeria eta bizio arazo baten konponbidean inplikatu behar dela, prostituziotik hurbil dauden emakume eta gazteei eragin diezaiekeen heinean. Kontrara, eredu honi planto egin diotenek uste dute debekuak arazoa kontrolatu beharrean jarduera hau ezkutuan gauzatzea eta prostituzioa ustiatzen duten erakundeak agertzea errazten duela⁷⁵.

Egun, ez dago munduan erabat debekatzailerik den sistema zorrotz jarraitzen duenik eta normalean abolizionismoaren baitan sartzen dira –*neabolizionismoa* deritzona–, praktikan prostituzioa eta haren ingurunea kriminalizatzen dituzten arauak hartzen dituzten arren. Halako kasuak ematen dira ekialdeko Europar Batasuneko herrialdeetan. Esaterako, Eslovenian 2003an prostituzio autonomoa deskriminalizatu zen eta orain alegala da (ez dago debekatua, baina ez da erregulatzen); hori bai, kaleko prostituzioa delitu arin bezala zigortzen da eta horrek, prostituzioaren jarduna apartamentu eta saloietara eraman du. Bestalde, Montenegron prostituzioa erabat ilegala da 200 eta 1000€ arteko isunak edo 30 eguneko kartzela zigorra toki publikoetan prostituzioan

⁷³ HEIM, DANIELA eta MONFORT, NURIA «Vigilar y castigar: las nuevas propuestas de políticas públicas para la prostitución en Europa; análisis de los modelos de Suecia y los Países Bajos», *Nueva Doctrina Penal* aldizkarian argitaratua, 2005, (771-812 orr.).

⁷⁴ MAQUEDA ABREU, MARIA LUISA «La prostitución: el “pecado” de las mujeres / Prostitution: the “Sin” of Women», *Cuadernos electrónicos de filosofía del derecho* aldizkari elektronikoa argitaratua, 2017ko ekaina.

⁷⁵ APRAMP/Fundación de Mujeres «La prostitución - Claves básicas para reflexionar sobre un problema», 2005 (62.orr); BARBA ÁLVAREZ «Delitos relativos a la prostitución», 2003 (65-66 orr.).

aritzen direnei ezarri; aldi berean, proxenetismoa eta burdelen zein antzeko lokalen edukitza ere zigorgarriak dira⁷⁶. Serbian ere antzeko joera jarraitzen da bertan ere prostituzioa legez kanpokoa baita.

Oro har, aitortu behar da sistema debekatzailleak emaitza negatiboa erakutsi duela, izan ere, prostituzioaren kausak aztertzen ez dituenek eta delitu bihurtzen denez bere jarduna ezkututzen da. Emakumeen egoerak okerrera egiten du proxeneten eta tratularien mende geratzen baitira: mundu horretatik ateratzeko, lan zein bizi baldintza txarrak salatzeko eta laguntza lortzeko aukera galtzen dituzte. Gainera, poliziaren esku-hartzea ematen denean, prostitutak dira isunak jaso eta espetxeratuak amaitzen dutenak, proxeneten lekuan. Debekuak are gehiago indartzen ditu prostituzio-egoeran dauden pertsonen buruzko aurreiritziak haien arriskuari, kriminalizazioari eta “bizioari” dagozkienak eta gainera, delitugile bihurtzen ditu. Errealitateak erakusten du proxeneta eta bezeroak prostitutekin batera zigortu arren, azken finean epaituak izaten direnak prostituitzen diren pertsonak direla. Halako sistema/arauak jarraitu diren herrialdeetako ikerketek hala erakusten dute.

3.5. ARAUDI FALTA EDO ALEGALITATEA

3.5.1. ESPAINIA

Orain arte Europar Batasunean indarrean dauden hiru sistema ikusi ditugu eta jakina denez, Espainia ez da eredu horietako batean ere sartzen. Hasteko, Espainian prostituzioan aritzea ez da delitua eta hasiera batean, legez kanpokotzat ere ez da jotzen. Era berean, jarduera hori borondatez egiten denean errespetatu beharreko lan izaerako araudirik ez dago. Ez dago berriaz debekatzaillea den araudirik ezta sistema abolizionistaren zantzuak jarraitzen diren politik argirik ere. Estatuko araudirik gabeko sektorea⁷⁷ da; hau kontuan izanik, esan daiteke Espainia linbo juridikoa deritzon egoera batean aurkitzen dela “nahita” edo borondatez gauzatzen den prostituzioari dagokionez. Esan beharrik ez dago derrigortutako prostituzioari eta besteren konturako sexu-esplotazioaren inguruko egintza orotarako santzio penalak eta jazarpen juridiko-penala aurreikusita daudela.

⁷⁶ Montenegroko Zigor Kodea, Montenegroko Errepublikaren Aldizkari Ofiziala, 210.artikuluak:https://www.legislationline.org/download/id/8406/file/Montenegro_CC_a_m2018_en.pdf

⁷⁷ Gobernuak araudien faltan, Udalerri bakoitzak arautzen du

Estatuan orain arte sektore honi buruzko araudirik ez dago, udalerriek horren inguruko politika egitea ahalbidetzen duena. Politika gehienak udal-ordenantzen⁷⁸ bidez ezartzen dira. Ordenantza batzuek bezeroen jarrera soilik zigortzen dute, neurri abolizionistak jarraituz, zerbitzu sexualen erosketa kondenatzeko helburua baitute. Dena dela, orokorrean, bezeroak zigortzeaz gain prostitutak ere santzionatzea erabaki dute. Beraz, Espainian eredu debekatzailera gerturaten den sistema bat hartu duela dirudi (sistema *pseudo-debekatzailea*), sexu-zerbitzuen ematean aritzen diren emakumeak zigortzen direlako, administrazio bidetik bada ere. Ordenantzen asmoa batez ere espazio publikoa babestea da, beraz, kalean egindako eskaintza, eskaera eta onarpena -eta nola ez, kalean harreman sexualak praktikatzea- debekatzen dira.

Egoera nahasi honek prostituzioan aritzen diren pertsonen babes sozialen falta, ezjakintasuna eta ziurgabetasuna eragiten du. Prostituentzako santziorik aurreikusten ez den udalerrietan ez da hauen gizarteratzeko inolako neurririk aurreikusten. Antzeko zentzuan, zigorrak aurreikusten diren ordenantzek “pobrezia zigortzea eta kriminalizatzea besterik ez dute lortzen”⁷⁹, praktika hori desagerrarazi beharrean sexualangileen baldintzak are gehiago okertzen baitituzte. Politika debekatzaileek prostituzioan aritzen diren pertsonak esparru publikotik desagerrarazten dituzte eta sarritan asistentzia neurriak aurreikusten diren arren, ez dira aplikatzen.

Sistema Prostituzionalaren Abolizionistaren Lege Organikoa⁸⁰ mugimendu feminista abolizionistak aurrera ateratako ekimena da, 2019ko azaroaren 30ean asanblada bidez erabakitako proposamenen emaitza eta eztabaida zabal batekin 2020ko otsailaren 22tik

⁷⁸ EFE «Prostitución: así está la normativa en España y Europa», *Público* egunkari digitalean argitaratua, 2018ko irailaren 1ean: “[...] la ordenanza de Barcelona, que rige desde 2012 y sanciona con hasta los 3.000 euros la prostitución callejera, tanto a clientes como a prostitutas. [...]El Ayuntamiento de Valencia tiene desde 2013 una nueva ordenanza sobre prostitución que incide en sanciones a clientes y la prohibición de la publicidad y de la actividad. En León, no se menciona la prostitución callejera en ninguna norma local de forma específica pero la ordenanza de Protección de la Convivencia Ciudadana y Prevención de las Conductas Antisociales recoge multitud de infracciones relacionadas con esta actividad y en el caso de Avila está expresamente prohibida”: <https://www.publico.es/sociedad/sexual-prostitucion-normativa-espana-europa.html>

⁷⁹ VILLACAMPA, CAROLINA eta TORRES, NURIA “Políticas criminalizadoras de la prostitución en España”. Lleida hiriarren ordenantzari buruzko ikerketa bat da eta antzeko araubidea jarraitzen duten ordenantzak aztertzen dira. Ikerketatik ondorioztatzen da bezeroek diruzko zehapen gutxiago jaso dituztela prostitutek baino.

⁸⁰ Ley Abolicionista del Sistema Prostitucional: <https://leyaboliconista.es/loasp/>

kolektiboki eraiki izan dena, izan ere, ehun emakumek baino gehiagok eta Espainiako lurraldeko hainbat tokitako erakunde feministek parte hartu zuten. Lege honen onarpenerako kanpainak babes handia lortu du ez soilik espainiar estatuan baizik eta nazioartean ere; baina oraindik, proposamena besterik ez da. Bereizkeria eta emakumeen aurkako muturreko indarkeriaren egitura osatzen duen praktika hau lege bidez debekatzea proposatzen du.

Lege proposamenaren bizkarrezurra 3 ardatzek osatzen dute. Alde batetik, prostituzio-egoeran dauden emakumeei, haien jatorria edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial edozein dela ere, babes, arreta eta erreparazio osorako beharrezkoak diren eskubide eta baliabideak bermatzeko neurriak proposatzen dira. Bestetik, bitarteko hertsatzaileak erabiliz edo irabazi-asmo hutsez inoren prostituzioan parte hartzen duten edota norberaren onurarako edo probetxurako sexu-esplotazioaren industrian aritzen direnen eta proxeneten jarduerak eraistea eskatzen da. Eta hirugarrenik, prostituzio-eskaria guztiz indargabetu eta gizartetik desagerrarazi nahi da indarkeria eta esplotazio mota horrek irauteko funtsezko elementua baita. 2019an PSOE-k bere hauteskunde-programan⁸¹ prostituzioa indargabetzeko eta sexu-esplotazioa eta salerosketa-sareak geldiarazteko burdelak debekatzea eta bezeroei isuna jartzea bezalako neurriak hartzeko asmoa plazaratu zuen eta Zigor Kodean arlo honetako portaera berriak (*tercería locativa*) tipifikatzea proposatu zen. Sozialistek aldarrikatu zuten prostituzioaren “abolizionismorako” politikak hartzea ezinbestekoa zela. Suediar ereduari jarraituz, bezeroei eta prostituzioaren eskariari isunak jartzeko konpromisoa hartu zuen. Gogoratu behar da lege abolizionista baten erredakzioa egitea PSOE-Podemos gobernu koalizioaren adostasun puntuetako bat izan zela; oraindik lege horren esperoan gaude.

4. LAUGARREN ATALA: AZKEN GOGOETAK

Hainbat alditan errepikatu denez, prostituzio fenomenoaren ulertzea eta bere zabalera osoa aztertzea oso kontu zaila da. Nazioartean eduki ezberdinetako arauak aurkitzen ditugu eta estatu bakoitzak hartutako gai honekiko jarrera aldakorra da bakoitzak bizi izan duen testuinguru historikoa desberdina izan delako. Horregatik, denei aplikagarri zaien arau komun bat -ideologia komun bat- ezartzea ezinezkoa da gaur egun. Hala ere, bigarren

⁸¹ 2019ko hauteskundeetarako PSOEren “Ahora sí. Ahora, Gobierno. Ahora, España” hauteskunde-programa (<https://www.psoe.es/media-content/2019/10/Ahora-progreso-programa-PSOE-10N-31102019.pdf>) eta 2016eko hauteskundeetarako “Sí, un sí por el cambio” hauteskunde-programa (<https://www.psoe.es/media-content/2016/05/PSOE-Programa-Electoral-2016.pdf>)

atalean arrazoitu den bezala, nazioartean prostituzioaren ezeztapenaren aldeko zantzuak aurkitzen dira gehien bat, bere aldekoena baino. Prostituzioa esklabotzaren aurpegi modernoago bat da eta edozein esplotazio mota bezala -izan lanekoa zein kriminala-, gizartetik behin betiko ezabatu behar da. Estatuak, orokorrean, ideologia horretako Hitzarmen eta Itunak sinatu dituzte baina euren herrialdeetan ez dituzte xedapenok egokiro aplikatu barne araudian horiek barneratuz: batzuek ez dituzte prostituten babeserako zein erregulaziorako neurriak hartu (Espainia, Italia, Portugal, etab) eta beste batzuek, ez sinatzeaz aparte, era zabal batean arautu dituzte prostituzio jardunaren eremuak (Alemania, Belgika, Herbehereak, etab).

Europako Zuzentzauek eta Erregelamenduek prostituzioaren debekuaren aldeko joera erakutsi dute lan honen bigarren atalean ikusi izan dugunez. Beraz, Europar Batasuneko estatu kideen adostasunarekin erredaktatutako dokumentu horiek aurrean izanik, nola da posible estatu kide batzuek prostituzioa legalizatu eta erregularizatu izana? Bada, benetan sinesten dutelako adinez nagusikoen borondatezko prostituzioan. Noski, derrigortutakoa den prostituzioaren eta esplotazioaren existentzia ez dituzte bazterten, baina prostituzio lana libre eta ahalduntzailea (*empoderante*) dela irizten dute. Horregatik, prostituzio jarduna sakonki garatu da Alemanian, Belgikan eta Herbehereetan, adibidez. Prostituten defentsarako sistemak eratu dira, kontratupeko langile izan nahi dutenentzako lan-kontratu mota bereziak aurreikusi dira eta beren kasa aritu nahi dutenei autonomoen erregistroetan inskribatzeko aukera aurreikusi zaie. Arazoa da, kontratupean aritzen direnen kopurua benetan gertatzen denarekin alderatuz, murrizta dela; hau da, errealitatean lan kontraturik egiten ez dela. Bestalde, norbere kabuz aritzen direnen gehienak ere ez dira erregistroan inskribatzen.

Egia da prostituzioan jarduten duten pertsonen ehuneko ehuna ez dela derrigortuta edo mehatxupean daudelako aritzen. Borondate eta askatasunean oinarritutako lana izan daitekeela ukatzerik ez dago: pertsonen salerosketa, sexu-esplotazioa eta erabaki askatasuna desberdindu behar dira. Ulertu daiteke norbaitek horretan aritzeko benetako nahia izatea. Kontua da, pertsona batzuen adostasuna egoteak ez duela gainerakoien egoera berdina dela adierazten; hau da, gehiengoaren perfila ikusirik (immigrantea, emakumea, pobrea), ez litzateke batzuen “esperientzia ona”-ren egotea argudiatuz legeztatu behar proportzio handi batek sektore horretatik atera nahi eta ezin badute.

Hau kontuan izanik, prostituten artean “kategoria” desberdinak daudela ondorioztatu dezakegu, lan egiten duten eremuaren arabera ere sailkatu daitezkeenak: luxuzkoa, burdeletakoa eta kalekoa. “Luxuzko prostitutek”⁸² diru-sarrera handienak irabazten dituztenak dira, bezeroak aukeratzeko askatasuna dutenak, eta eurei interesatzen zaizkienak soilik atenditzen dituztenak: escort-ak eta masaje zentroetan aritzen direnak izaerakoak, batik bat. Sexu-zerbitzuen edukia zehazteko aukera dute: nola eman, zer egin, non jardun... Normalean horretara bideratutako etxeetan edo maila altuko hoteletan lan egiten dute. Prostituzioa legala den herrialdeetan suposatu liteke *langile* hauek autonomo gisa jarduten dutela, baina egiatan, ez dira erregistratzen; hau da, ez dute zergarik ordaintzen, baina Gizarte Segurantzaren prestaziorik ere ez dute jasotzen. Inskribatzeko aukera daukate eta eurek erabakitzen dute komeni zaien ala ez. Aldiz, kaleko prostitutek ez dute eskubide hori; izan ere, prostituzioa baimenduta dagoen estatuetan prostituzio mota hau debekatzeko joera hartu da⁸³. Azken urteetan, Herbehereek sexu-esplotazioaren hazkundera ikusi dela kontuan izanik, hainbat lokal ixtea erabaki zuen Amsterdamgo alkateak.

Honen harira, prostituzioaren sektorean garrantzi berezia duen gaixotasunen transmisioa aipatu behar da. Sexu-transmisio bidezko gaixotasunen kontrola eramateko bi aukera daude: mediku azterketak egitera behartzea edota urtero (edo aldian-aldian) mediku kontsultara joatea asistentzia medikoa eta gaixotasunen prebentzioari buruzko informazioa jasotzera. Sistema erregulazionistaren aurrekaria izan zen erregelamentarismoan prostitutak derrigortuta zeuden azterketa medikoak egitera sexu bidezko gaixotasunen zabalkuntza egiteko. Proba hauek, umiliagarriak izateak ez ezik, estigmatizatzaileak ere baziren: gaixotasunak zabaltzearen errudun bakartzat eurak hartzen zirelako, bezeroak ez baitzeuden inolako kontrolik egitera behartuak. Gainera, prostituten kontrolerako erregistroak zeuden polizien eskura. Kritika ugari jaso zituenez proposamen horrek, prostituzioa arautu den herrialdeetan derrigortasun hori ez sartzea erabaki zen, prostituten intimitate eta ohorea babestu nahian. Orduan, nola babestu daitezke? Halako gaixotasunen transmisioa ekiditeko, gaur egun kondoia erabiltzeko

⁸² Luxuzko prostitutei buruz informazio gehiago eskuragarri: *Fuera de cobertura* Cuatro telebista kanalaren programatik “Prostitución de lujo. El negocio eterno” (T03XP02), 2019ko ekainaren 20koa. Eskuragarri hemen: https://www.cuatro.com/fueradecobertura/temporada-3-programa-2-prostitucion-fuera-cobertura-completo-hd_18_2773320270.html

⁸³ Ikus. Hirugarren ataleko Erregulazionismoaren epigrafeko “Herbehereak” azpi-titulua (30.orr).

betebeharra ezarri da eta horien hornidura prostituzio-etxe eta antzeko izaera duten establezimenduetako jabeen betebeharra da. Kontua da, betebehar hori errespetatzen dela kontrolatzea ezinezkoa dela; sexu-zerbitzuen ematea kontu intimoa da, bezero>zerbitzu-emailearen artean gauzatzen dena.

Sistema erregulatzaileari aitortuko diodan ezaugarri positibo bat kontraprestazioa erreklamatzeko auzibidera jotzeko bermea da. Lan kontratua duten zein erregistratuta dauden norbere konturako langileek beti jaso ahal izango dute eskainitako zerbitzuaren gaineko adostutako dirua bezeroak *gustora geratu ez* dela adierazi arren; hau da, behin zerbitzua emanda, dirua aseguratua izango dute. Ordainketa falta auzibidez galdatzeko aukera eskaintzeak esan nahi du sexu-langile oro, baita doako justizia jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek ere, erreklamatzeko eskubidearen titular izango direla. Aurrera pauso handia izan zen hau bezeroak sarritan ordaindu gabe joaten zirelako. Arazoa hemen, beti bezala, kontratupeko langile edo erregistratutako autonomia izatea da, hortik kanpokoek ez baitute halako babesik jasoko. Aintzat hartu behar da Herbeheretan –esaterako– lokaletako lana gailentzen dela eta horiek jada suposatzen dela “babestuta” daudela; baina kalean kontratu gabe aritzen direnek ez dute halako aukerarik.

Herrialde erregulazionistek prostituzioaren jarduna kontrolatu nahian, arreta pertsonengan jarri beharrean lokal, establezimendu, burdel, masaje sala eta antzekoetan jarri du. Lizentzia sistemak eratu dira Alemanian eta Herbeheretan: horren bidez, hiri eta herri bakoitzean dauden lokalak eta sexu-langileak kontrolatzen dituzte Administrazio ikuskarien bitartez. Era honetan, lan eta higiene baldintzak errespetatzen direla kontrolatzen dute. Lizentzia lortzeko, bestalde, hainbat baldintza ezartzen dira, garrantzitsuena: pertsona trafikoan eta antzeko delituetan kondenatutakoek ezingo dute halakorik lortu, ezta pertsonen salerosketan zein droga trafikoan aritzen direla susmatzen denean ere. Lokalak, behintzat, kalean aritzea baino seguruagoa dira aldian-aldiro ikuskaritza publikoak bisitatzeko dutelako: baina ezin daiteke baieztatu gainerako langileek bezala, lan baldintza eta eskubide berak lortzen dituztenik.

Lan honen bidez argi utzi nahi izan dut prostituzioaren gaiari aurre egiteko sistemarik egokiena abolizionismoa dela; alde batetik, sexu-zerbitzuen bezeroak eta inoren prostituzioaz aberasten direnak –proxenetak– zigortzeko helburua baitu eta bestetik, prostituitzen diren pertsonentzako laguntzak aurreikusten direlako. Abolizionismoaren

aburuz prostitutak ez dira “gizartearen gaitzak”, indarkeria matxistaren biktimak baizik. Peter Szil-ek adierazi bezala “*La conversión de las mujeres en objetos sexuales es un proceso de deshumanización en cuyo extremo final está la violencia masculina. Es esto lo que la prostitución institucionaliza, ya que el cliente consigue de la persona prostituida [...] algo que de otra manera no podría conseguir sino con violencia. El cliente oculta ante sí mismo el hecho de la violencia itnerponiendo una infraestructura (manejada por los proxenetas) y el dinero*”⁸⁴. Beraz, prostituzioa ezabatzeko lehen pausoa bezeroengan arreta jartzea da, haien egintza baita kriminalizatu beharreko portaera.

Prostituzioa araututako herrialdeetan gertatzen denaz aparte eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunari kontrajarriz, esan behar da prostituzioak horren aurkako errealitate bat suposatzen duela, indarkeria matxistaren beste aurpegi bat osatuz. Sexu-zerbitzuen emailearen eta eroslearen perfilari begiratu besterik ez dugu: prostituitzen dena emakumea⁸⁵ da hein handi batean eta eroslea, aldiz, gizonezkoa. Honi gainera, beste faktore bat gehitu behar diogu, ezberdintasuna ez baita soilik generoagatikoa, arrazan eta klase sozialean oinarritutakoa ere. Izan ere, prostitutak orokorrean baliabide ekonomiko nahikorik ez duten eta ia-marginalitatean bizi diren emakumeak dira, diru sarrerak lortzeko beste irtenbiderik izan ez eta horretan aritzen direnak. Sexu-zerbitzuen erosle eta kontsumitzaileen perfila, ordea, aldakorra izan daiteke; hau da, gehienak gizonezkoak direla argi badago ere, beste bi faktoreek ez dute honetan hainbeste eraginik. Adierazi nahi dudana hurrengoa da: gizarte-maila guztietako gizonek erabilera sexuala ematen diete behe-mailakotzat jo dituen emakume pobreen, migratzaileen eta munduko kultura, arraza eta eskualdeetako enborputzei⁸⁶. Hitz gutxitan esanda, prostituzioaren onuradunak eta bezeroak prostituitzen den pertsonaren ahultasunaz baliatzen dira.

Alabaina, prostituzioa genero kontu bat da, izan ere, “*la prostitución se alimenta de mujeres con pocos recursos materiales y culturales que son expulsadas de sus hogares,*

⁸⁴ SZIL, PETER «Los hombres, la pornografía y la prostitución», Espainiako Diputatuen Kongresuan egindako ponentzia, 2007

⁸⁵ Esaterako, Balear Irletak datuei erreparatu: MACÍAS, JAVIER Tipos de prostitución, *El mundo* egunkarian argitaratua, 2015eko martxoaren 18a: <https://www.elmundo.es/baleares/2015/03/18/55093dbd268e3e054f8b4571.html>

⁸⁶ COBO, ROSA «La prostitución en el corazón del capitalismo», Catarata Argitaletxea - *Colección Mayor* 633.zenbakia, 2021 (108-113.orr)

*de sus entornos sociales y también de sus propias expectativas de vida [...] La expulsión se completa con otra violencia, aquella que vulnera el derecho de las mujeres a la soberanía de sus cuerpos*⁸⁷. Gainera, gorputzaren eta intimitatearen erabilera oso zehatza suposatzen duen ektibitatea da, Sheila Jeffreysek⁸⁸ esan zuen bezala: “*El centro de la industria del sexo son los cuerpos de las mujeres, [...] toda esta actividad económica se sustenta sobre las partes del cuerpo femenino, que se han convertido en el fundamento de un negocio organizado a escala global*”.

Prostituzioa ezabatu ahal izateko, argi dagoenez, arauk prostitutako pertsonen babeserako neurriak aurreikusi behar dituzte: sektore horretatik ateratzeko laguntzak, gizarteratze planak, birgaikuntza eta lanera sartzeko formakuntzak, eta abar. Prostituzio sektoretik ateratzeko ezinbesteko baliabideak eskaini behar zaizkie. Akzio neurri positiboak hartzeaz aparte, izaera prebentiboko politikak ere hartu beharko lirateke, batez ere bezeroetan oinarritutakoak. Neuri prebentiboen bidez sexu-zerbitzuen kontsumoaren aurkako kontzientzia garatzen da gizartean, hori da Suediako legediak eta horren ondoriozko Norvegiar eta Islandiar legediek aurreikusi dutena. Politika hauen onarpenak estatuen aldetik datorren inbertsioa eskatzen du; bai prostitutak laguntzeko elkarteak eratuz edo finantzatzuz eta baita funtzionario publikoak eta segurtasunekoak formatuz. Izan ere, ez dago “baliozko” legerik hori aplikatzeko bitartekorik ez dagoen heinean. Estatuko langileen formakuntza bereziki garrantzitsua suertatzen da eurak direlako prostitutekin lehenbiziko kontaktua dutenak: trafikoaren biktima izan direnen harreran egotea, ordenantza nahiz legeek tipifikatutako portaeren ondoriozko atxiloketak, naziotasun eta nortasuna ikertzean... Langile publikoek biktima eta indarkeriaren perspektiba oso kontutan izan behar dute halako pertsonekin tratatzerakoan.

Bukatzeko, pornografiak prostituzioaren garapenean izan duen garrantzia azpimarratu nahi dut. Pornografia eta prostituzioa hertsiki lotuta dauden bi fenomeno dira: diru-truke egiten diren sexu-harremanen trukeaz ari gara, grabatutakoa izan daitekeena (pornografia) ala ez (prostituzioa). Bestela esanda, kameraren existentzia izan liteke,

⁸⁷ COBO, ROSA «La prostitución en el corazón del capitalismo», Catarata Argitaletxea - *Colección Mayor* 633.zenbakia, 2021 (14.orr).

⁸⁸ JEFFREYS, SHEILA «La industria de la vagina. La economía política de la comercialización global del sexo», 2011 (11.orr).

laburbilduz, pornografiaren eta prostituzioaren arteko desberdintasun bakarra⁸⁹. Bai maila praktikoan bai kontzeptuarekin, pornografia komertziala prostituzioaren bestelako forma gisa uler daiteke; izan ere, bi fenomenoetan emakumeak erosten dira gizonezko erosleak sexualki asetzeko asmoz edo orokorki, sexu-zerbitzuak ematen dira diru truke⁹⁰. Prostituzioa eta modernoagoa den pornografia beti egon dira gizartean txertatuta, ezkutuan bada ere, gizonezkoen publikora bideratuta: prostituzioa burdeletan eta kalean eta pornografia zinema-areto zehatzetan, aldizkarietan eta bideoetan. Alabaina, egun azken honek 180ºko bira eman du: *“pornografiaren industria berrasmatu egiten da eta emakumeen gorputzak sexualizatzen dituzten irudi patriarkalen fenomenoari etekina atera nahi dio. [...] OnlyFans plataformaren arrakasta propaganda misoginoaren garaipena da, emakume gazteenak "balidazio maskulinoarekin" eta "diru errazarekin" "tentatu" nahi dituen, patriarkatuak eta neoliberalismoak, hurrenez hurren, emakumeentzat asmo faltsu gisa jartzen dituzten bi inposaketak”*⁹¹. Pornografiari atxikitako gaur egungo arazoa da emakumeengan, eta batez ere gazteengan, txertatu nahi izan den “ahalduntzearen” ondorioz gero eta adingabe gehiago sartzen direla mundu horretan, euren osasun mentalean izan dezaketen eraginaren kontziente izan gabe.

Laburtuz, prostituzioa eta horrek dakartzan sexu-industria zabalaren egintza kaltegarri oro gizartetik ezabatzearen aldeko politikak hartzea ezinbestekoa zaigu gizarte demokratiko, sozial eta berdintasunean oinarritutako modura hezi gaitzen.

⁸⁹ GARCÍA, JOSÉ LUIS «Pornografía y prostitución (I): la teoría y la práctica», *Psico Network Comunidad* bloga, 2020ko uztailaren 11a: <https://www.psiconetwerk.com/pornografia-y-prostitucion/>

⁹⁰ MEAGAN TYLER, M. «Harms of production: theorising pornography as a form of prostitution», *Women´s Studies International Forum*, 2015 (114-123 orri).

⁹¹ GUERRERO, SANDRA D. «OnlyFans y el camino de la pornografía a la legitimación», *Asamblea Abolicionista - Madrid* <http://abolicionmadrid.com/onlyfans-y-el-camino-de-la-pornografia-a-la-legitimacion>

BIBLIOGRAFIA

ACIEN, E. y MAJUELOS, F. «De la exclusión al estigma. Almería: Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía», 2003

ADAIR, PHILIPPE eta NEZHYVENKO, OKSANA «Assessing how large is the market for prostitution in the European Union», *Éthique et économique/Ethics and economics, Éthique et économique*, 2018ko urtarrilaren 3a. Azken eguneratzea: 2020ko martxoaren 19a

AHLIN, MARIA “The Swedish Law (on prostitution), *Freethem*, 2019

ALTINK, S. «La prostitución a debate. Por los derechos de las prostitutas», BRIZ/GARAIZÁBAL koordinatzaileak, 2007

APRAMP/Fundación de Mujeres «La prostitución - Claves básicas para reflexionar sobre un problema», 2005

APRAMP/Fundación de Mujeres «La trata con fines de explotación sexual», 2015eko urtarrilaren 4a. Azken eguneratzea: 2017ko ekainaren 27a.

ARONSON, G. «Rutgers Journal of Law & Urban Policy», 2006

AYUBI MEJÍA «La Prostitución en el contexto laboral internacional», 2013

BARBA ÁLVAREZ «Delitos relativos a la prostitución», 2003

BETCHER SBROLLA, CAMILA «¿Regularizar o prohibir el proxenetismo?», *El Jurista* web orrialdean argitaratua, 2014ko azaroaren 9a.

BOZA MORENO, ELENA «Sobre la prostitución. Un análisis desde la Política Criminal y la necesidad de su legalización», Doktoretza Tesia, Juana del-Carpio-Delgado Zuzendaria, 2017ko ekaina, Sevilla

CARRACEDO BULLIDO/VICENTE COLLADO, «La Prostitución no es un fenómeno social legalizable», Emakume Abokatuen XVI. Estatuko Kongresua, 2002

CELEM, Comisión de Violencia «Prostitución. Ataque directo a los derechos humanos», 2010eko azaroa (Madril)

COBO, ROSA «La prostitución en el corazón del capitalismo», Catarata Argitaletxea - *Colección Mayor* 633.zenbakia, 2021

COMISIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN DE MALOS TRATOS A MUJERES «¿Qué es la prostitución?», 2010

D. CZARNECKI, H. ENGELS, B. KAVEMANN, W. SCHENK, E. STEFFAN eta D. TÜRNUAU «Prostitution in Germany – A Comprehensive Analysis of Complex Challenges», 2014ko apirila. Pertsonen trafikoari buruzko ahokularia: Naile Tanis:

DAALDER, ANNELIES «Prostitution in the Netherlands in 2014», 2015eko apirila, *Research and Documentation Centre (WODC)* gidaritzapean

DAYRAS, MICHELE «Prostitución, pornografía y tráfico de mujeres», *Ciudad de Mujeres* portal feminista argitaratua, 2006ko maiatzaren 5a

DE MIGUEL ÁLVAREZ, ANA eta CERMEÑO PALOMO, EVA «Los inicios de la lucha feminista contra la prostitución: políticas de redefinición y políticas activistas en el sufragismo inglés», *Brocar-Cuadernos de investigación histórica* - 35. zenbakia, 2011

DE MIGUEL, ANA «Neoliberalismo sexual - El mito de la libre elección» *Ediciones Cátedra*, 2015

ESCOBEDO MURGUEZA, ISABEL «El movimiento abolicionista de la prostitución durante la II República», *Veinte años de congresos de Historia Contemporánea (1997-2016): X Congreso de Historia Local en Aragón*, Carlos Forcadell Álvarez eta Carmen Frías Corredor-ek koordinatua, 2017

EUROPAKO BATZORDEA «Data collection on trafficking 2018 in human beings in the EU», *Lancaster University* Europako Batzordearekin elkarlanean, 2018

FEDERACIÓN MUJERES PROGRESISTAS «Trata de mujeres con fines de explotación sexual en España [estudio exploratorio]», *Fmujeresprogresistas*, 2008 (6.orr)

GÓMEZ GUERRERO, M^a DOLORES «Un estudio sobre La Trata, la Prostitución y otras formas de Explotación Sexual», Master Amaierako Lana - Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea, 2013ko ekainaren 19a

- GONZÁLEZ DEL RÍO «El ejercicio de la prostitución y el derecho del trabajo», 2013
- GRUPO DE ESTUDIOS DE POLÍTICA CRIMINAL «Propuesta de regulación del ejercicio voluntario de la prostitución entre adultos», 2010
- HEIM, DANIELA eta MONFORT, NURIA «Vigilar y castigar: las nuevas propuestas de políticas públicas para la prostitución en Europa; análisis de los modelos de Suecia y los Países Bajos», *Nueva Doctrina Penal* aldizkarian argitaratua, 2005
- HUSCHKE S., SHIRLOW P., SCHUBOTZ D., WARD E. PROBST U. eta NI DHÓNAILL C. «Research into Prostitution in Northern Ireland» Belfasteko Erreginaren Unibertsitateak koordinatua, Justizia Departamentuaren web orrialdean argitaratua, 2014ko urrian
- IGLESIAS, SKULJ “Prostitución: ¿hacia la legalización?”, 2012
- JEFFREYS, SHEILA «La industria de la vagina. La economía política de la comercialización global del sexo», 2011
- JELDREZ CONTRERAS, CRISTOBAL «Pornografía y prostitución, las dos caras de la misma moneda», *WordPress* web orrialdean argitaratua, 2019ko uztailearen 29a
- KRAUS, INGEBORG «La prostitution est incompatible avec l'égalité hommes-femmes», *Wordpress* web orrialdean argitaratua, *La Comisión para la Investigación de Malos Tratos a Mujeres* Erakundeak Madrilén antolatutako konferentziatik aterata, 2015eko azaroaren 15a (Madril)
- LAN ETA GAI SOZIALEN MINISTERIOA «Impacto de una posible normalización profesional de la prostitución en la viabilidad y sostenibilidad futura del sistema de pensiones de protección social», Graciela Malgeseni doktorearen ardurapean, *Estudios y Cooperación para el Desarrollo*, 2006
- MARCOVICH, MALKA «Guide to the UN Convention of 2 December 1949 for the Suppression of the Traffic in Persons and of the Exploitation of the Prostitution of Others», 2001
- MAQUEDA ABREU, MARIA LUISA «Prostitución, feminismo y derecho penal», 2009ko martxoaren 19a

- MAQUEDA ABREU, MARIA LUISA «La prostitución: el “pecado” de las mujeres / Prostitution: the “Sin” of Women», *Cuadernos electrónicos de filosofía del derecho* aldizkari elektronikoan argitaratua, 2017ko ekaina.
- MEAGAN TYLER, M. «Harms of production: theorising pornography as a form of prostitution», *Women´s Studies International Forum*, 2015
- MORALES PLAZA, EVA MARIA «Prostitución y trata de mujeres con fines de explotación sexual», Master Amaierako Lana - Salamankako Unibertsitatea, 2010/2011
- OLSON, JAY “Prostitution Policy in Sweden - Targeting Demand”, The Swedish Institute, 2019
- PATO, IGNACIO «Clientes: el gran tabú de la prostitución», 2015eko apirilaren 28a
- PÉREZ OLIVA «Prostitución, una esclavitud no tan visible», *El País* egunkarian argitaratua, 2009ko maiatzaren 29a
- POYATOS I MATAS, GLORIA «La prostitución como trabajo autónomo», 2009
- REINSCHMIDT, LENA «Prostitution in Europe between regulation and prohibition. Comparing legal situations and effects», *Observatory for Sociopolitical Developments in Europe* web orrialdean argitaratua, 2016ko maiatza
- SALAS PORRAS, MARIA eta VILA TIERNO, FRANCISCO «El ejercicio de la prostitución como contenido de la prestación de servicios por cuenta ajena», 2008
- SANTOYO SALGADO, SOFIA «Modelos de Regulación de la Prostitución en la Unión Europea», Gradu Amaierako Lana - Balear Irletako Unibertsitatea, 2015/2016
- SCHULZE, ERIKA; NOVO CANTO, SANDRA ISABEL; MASON, PETER eta SKALIN, MARIA «Sexual exploitation and prostitution and its impact on gender equality», Europako Prlamentua - Policy Department C: Citizen’s Rights and Constitutional Affairs, 2014ko urtarrila (Brusela)
- SIEGEL, SINA «Mobility of Sex Workers in European Cities», *Springerlink.com*-en argitaratua erabilera publikorako, 2011ko abenduaren 27a

SONTAG, MELISA «Sex Work Explored: Rethinking the Laws Regulating Prostitution», 2006, *The Georgetown Journal of Gender and Law* aldizkarian argitaratuta

TAMPEP International Foundation (European Network for HIV/STI Prevention and Health Promotion among Migrant Sex Workers) «Sex work in Europe: A mapping of the prostitution scene in 25 European countries», Koordinatzaile nagusia: Licia Brussa, 2009

TRANSCRIME «National Legislation on Prostitution and the Trafficking in Women and Children», Europako Prlamentua - Policy Department C: Citizen's Rights and Constitutional Affairs, 2005eko iraila (Brusela). ID. N°: IPOL/C/FEMM/ST/2004-05

UNHCR/ACNUR Errefuxiatuen Babeserako Nazio Batuen Erakundeko Agentzia

UNODC «Global report on trafficking in persons 2018», Nazio Batuen argitalpena, 2018

VIGIL, CARMEN eta VICENTE, M^a LUISA «Prostitución, liberalismo sexual y patriarcado», 2006ko maiatza

WALKOWITZ, JUDITH «Vicio masculino y virtud feminista: el feminismo y la política sobre la prostitución en Gran Bretaña en el siglo XIX», 1990

WEITZER, RONALD «Legal Prostitution: The German and Dutch Models», 2017ko urria, *Dual Markets: Comparative Approaches to Regulation* liburutik

WERKMAN, KARIN «Briefing on legal prostitution in The Netherlands: policies, evaluations, normalisation», 2016ko ekaina

WIJERS, MARJAN «Prostitution Policies in the Netherlands», *Sex Work Europe* aldizkarian, 2008ko maiatza

ARAUAK

Nazio Batuen Erakundearen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, online eskuragarri: <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

Nazio Batuen Erakundearen 1949ko Pertsonen Salerosketa eta Besteren Konturako Prostituzio Esplotazioari buruzko Hitzarmena, online eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/TrafficInPersons.aspx>

Nazio Batuen Erakundearen 1965eko Arraza-bereizkeria mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Adierazpena, online eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CERD.aspx>

Nazio Batuen Erakundearen 1976ko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna, online eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CCPR.aspx>

Nazio Batuen Erakundearen 1976ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, online eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CESCR.aspx>

Nazio Batuen Erakundearen 1979ko Emakumearen Aurkako Edozein Formatako Diskriminazio Ezabatzeari buruzko Hitzarmena, online eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CEDAW.aspx>

Europako Kontseiluaren Gizakien Salerosketaren Aurkako Borrokari buruzko Hitzarmena, 197.Hitzarmena, Varsovia, 2005eko maiatzaren 16an. Berrespen-agiria online eskuragarri:https://boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2009-14405

Europako Kontseiluaren Haurrak Sexu-esplotazioaren eta Sexu-abusuen Aurka Babesteari buruzko Hitzarmena, 201.Hitzarmena, Lanzarote, 2007ko urriaren 25a. Berrespen-agiria online eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-17392

Europako Parlamentua eta Europar Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua Gizakien Salerosketa Prebenitu eta Borrokatzeari eta Biktimak Babesteari buruzkoa, 2002/629/JAI Erabakia, 2011ko apirilaren 5a, online eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/04/27/4/dof/eus/pdf>

Europako Parlamentua eta Europar Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua Biktima Babesteko Betebeharrari buruzkoa 2012ko urriaren 25ekoa, online eskuragarri: <https://www.boe.es/doue/2011/101/L00001-00011.pdf>